

PALESTINA: Okupatutako
lurraldeetako eta Euskal Herriko
feministak, kooperazio sarea josten > 4

KOADERNOA

Etikaz mintza gaitezen

LAURA MINTEGI > 21

GAUR8

2015ko otsailaren 28a | VIII. urtea • 406. zbk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



OZTOPOEN GAINETIK

EUSKARAREN ALDE PAUSOAK EMATEA BEHARREZKOA DA. BAINA, TAMALEZ, GEHIENETAN EZ DA NAHIKOA, SALTOAK ERE EMAN BEHAR DIRA ESPAINIAR ETA FRANTSES ESTATUEK JARRITAKO TRABAK GAINETIK PASATZEKO. GAURKO MANIFESTAZIOA DEITU DU KONTSEILUAK, DONOSTIAN. > 12

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Palestinako erresistentzia**feminista** 04**Irratia, haurren eskubideen****bozgorailu** 8**Euskararen aurkako injerentziak****salatzeko deiadarra** 12**Martxoaren 3ko sarraskia****ikasgeletan ikasgai** 17**e.lkarritzeta: Dani Fano eta Ainara****Azpiazu «Axpi»** 22**In Fraganti: Elena Loyo** 28**SINADURAK:**

- 03 **Iratxe Urizar:** Denborak ez du etenik
10 **Unai Fernandez de Betoño:** Jabegoa eta gainbalioa bereizi
11 **Iñaki Altuna:** Hauteskunde ziklo bat baino askoz ere gehiago
20 **Gorka Zozia:** Ausak nahi izan du
21 **Laura Mintegi:** Etikaz mintza gaitezen
26 **Amaia Ballesteros**
27 **Maidor Iantzi:** Euri pertsiana kolpeka
27 **Xabier Mikel Errekondo:** 23-Ftik Garoñara
31 **Iratxe Esnaola:** Interneten balio ekonomikoa



{ datorrena } Iratxe Urizar

Denborak ez du etenik

Normalean gertatzen ez bada ere, bulegoan badugu epaileak sakon eta luzarotik ikertzen ari diren tortura salaketa bat. Orain egun gutxi jaso berri dugu epaitegitik beste jakinarazpen bat (mugimendua dagoen seinale ukazina). Kasua 2012. urtearen hasieran atxilotu zuten gizon batena da: Guardia Zibilaren esku hiru egunez inkomunikatua egon eta gero, tortura salaketa aurkeztu zuen, eta ordutik ari da auzia atzera eta aurrera. Epaitegia ia segituan jarri zen lanean, eta oraindik ere horretan ari da. Hala ere, epaileak kasuaren gaineko interesa agertu badu ere, ez da, pentsa genezakeen bezala, zer gertatu zen argitu nahi duelako, noiz eta non gertatu zen zehazteko baizik. Bai, ondo irakurri duzue. Izan ere, auzia Donostian aurkeztu zenetik, Gipuzkoako Lurralde Auzitegitik beste herrialde batzuetakotara hara eta hona dabil. Gizona Gipuzkoako bere etxean atxilotu zuten, eta handik Madrilera eraman. Bada, auziaren espedientea bera ere Madrilera bidean diren hainbat auzitegira bidali dute jada. Orain urtebete, deklarazioa hartu zioten biktimari, bideo-konferentziaz; izan ere, espetxean daukate, urrunduta, epaiketaren zain. Bertan, hainbat galdera egin zizkioten, eta agerian geratu zen zein zen galdeketa benetako asmoa: zehaztea tratu txarrak non hasi ziren, erabakitzeko nork hartuko zuen kasua bere gain.

Horrela, eta lotsagorritzeko inolako beldurrik gabe, kolpeak hasi ziren unean non zegoen ba ote zekien galdetu zioten torturatuari, eta honek Madrilera burua estalita eraman zutela esan zuenean, a zer-nolako etsipena epailearena!

2015eko otsailean gaude, salaketatik hiru urte pasatu dira jada. Kasu honetan agerian geratu diren elementuez gain (hau da, biktimarekiko erabateko errespetu falta, zer gertatu zen jakiteko asmorik eza), ondorio larriak ekar ditzaketen eta kontuan hartzekoak diren beste zenbait gauza ere badaude. Alde batetik, egoera ikusita, oraingoz ikerketarik eman ez dela esan daiteke. Bestetik, salaketa inoiz epaiketara helduko balitz, balizko inputatuek –guardia zibilek– aringarri moduan erabili ahal izango dute beharbada auziak horren luze jo izana. Izan ere, denboraren inguruan asko idatzi eta esan da, besteak beste denbora gutxiegi inbertitzeari buruz (euskaldun batek bere eskubideak urratu izanagatik salaketa jarri eta kasua jarraian ixten denean), edota *tempus* judizialak helburu politikoekin erabiltzeari buruz. Hor ditugu, esaterako, epaiketa amaigabeak (18/98 sumarioa kasu,

“errekor” bat ezarri zuena bi urtez luzatu zen ahozko bistarekin!). Horren adibide argia da ere 2007an hainbat euskaldunen atxilotetarekin abiatu zen 4/08 sumarioa; ordutik daude 35 euskal herritar epaiketa zain, zer gertatuko zaien jakin gabe. Horren aurrekoa dugu 35/02 sumarioa ere, «herriko tabernen sumarioa» bezala ezagutu duguna; hamar urte eman ditu epaiketara heldu arte eta oraindik ez dago itxita. Denbora horretan guztian zehar, epaileak ezarritako neurri zorrotzen pean bizi beharra izan dute auzipetuek: pasaportetik gabe, ezinbestean epaitegira maiztasun zehatz batekin sinatzera joanez... Zama hori guztia, batzuetan, ahaztu egiten zaigu. Erabat baldintzaturik bizi dira, nahiz eta espetxean egon ez edota epaiketaren ondoriozko zigorrak jaso ez. Kontuak kontu, bada, ematen du kasu horiei ez zaiela aplikagarri lehen aipaturiko denbora-aringarria...


Espainiar prentsarentzat ere erabat agerikoak dira urraketok, sarri irakur ditzakegu-eta «pentsatzekoa da defentsak

Eskubide urratze sistematikoak ahalbidetzen dituen sistemari aurre egitea: hori da, agian, gauzak aldatzen hasteko bidea

Europara joko duela» bezalakoak, espainiar justiziaren ibilbide naturala hori dela adierazi nahi balute bezala. Hau da, kanpotik etorriko dira portaera horiek zuzentzera, lau, bost, sei... urte barru. Horixe da helburua: goazen bitarte horretan gure mende daudela erakustera, eta, gero, gerokoak.

Agian ez da urraketa zehatz baten aurka jotzeko unea, sistema osoak egiten duelako posible eskubide urratze eten-gabea. Tortura salatu edota hura posible egiten duen sistemaren kontra jo? Tratu txarrak ikertu beharrean hiru urtez auziaren gaineko eskumena nork duen eztabaidatzen aritu den epaileak badu erantzukizunik, batik bat hainbeste denbora pasatuta oso zaila denean tortura egon dela frogatzea. Hamar urte epaiketaren zain egon eta gero, inputatuak zigortzerik ba al dago?

Egunotan Nazio Batuetako bost esatari berezi eskubideen urratze zehatz bat inoiz ez bezala salatzen ikusi ditugu. Bat egin eta eskubide urratzeak ahalbidetzen dituzten espainiar legedia eta zigor kodea jarri dituzte jomugan. Urratze sistematikoak ahalbidetzen dituen sistemari aurre egitea: hori da, agian, gauzak aldatzen hasteko bidea. •



Okupazioak emakumeengan eragin bikoitza eta desberdina duela nabarmendu dute aktibista feminista palestinarrek. Mohamed ABBED | AFP

ERRESISTENTZIA FEMINISTA PALESTINAN

Okupatutako lurraldeak eta Euskal Herria kooperazio sarea josten

 POLITIKA / Virginia ENEBRAL

Basauriko emakumeen etxean, Marienean, elkarrekin bildu ziren joan den asteburuan Zisjordaniako eta Euskal Herriko hainbat erakunde feminista. Parean jarrita kooperaziorako sare bat josten hasi dira, batzuek zein besteei baitute helburu parekidetasuna zimendu izango duen jendarte eredu bat eraikitzea. Emakume palestinarrek beren egunerokoaren testigantza latza ekarri zuten jardunaldiotara, okupazioaren eta jendarte patriarkalaren kontra borrokatu behar baitute aldi berean.

Palestina hitza entzutean okupazioa, indarkeria eta blokeo etortzen zaizkigu burura. Hala ere, Palestinako lurralde okupatuei erresistentzia, elkartasuna eta jabekuntza ere badarite, borroka hori, halaber, feminista ere baita. Kooperazio elkartasun sare baten oinarriak ezartzeko helburuarekin, pasa den asteburuan Marienea Basauriko emakumeen etxea Zis-

jordaniako eta Euskal Herriko erakunde eta elkarte feministen arteko topaketaren lekuko izan zen. Gazako zerrendari inposatutako blokeoak bertako Emakumeentzako Ikerketa eta Aholkularitza Legalerako Zentroko (CWLRC) eta Emakumeen Gaientarako Zentroko (WAC) ordezkariak Basaurin izatea galarazi zuen. Nazio Batuen Palestinar Iheslarietako Laguntza eta Lan Bulegoak (UNRWA) sustatutako “Sareak ehuntzen” proiektu-

tuaren baitan, aurtengo jardunaldiak 2013an emakume euskaldunek Palestinara egindako bisitaren jarraipena izan dira.

«Okupazioak emakumeengan eragin bikoitza eta ezberdina du», azpimarratu zuten bildutako ordezkari palestinarrek. Horrenbestez, bi esparru ezberdinetara bideratu behar dituzten ahaleginak. «Alde batetik, beste guztiak bezala patriarkala den jendarte palestinarrean emakumeen aurkako indarkeria ageri da. Bestetik, Israelek inposatzen duen *apartheid* sistemaren ondorioak daude», salatu zuen Sawsan Zaher Emakumeentzako Laguntza eta Aholkularitza Legalerako Zentroko (WCLAC) zuzendariak. Kontrolguneetan izandako arazoengandik lana galdu eta gero gizonezkoek emazte eta alabei ordainarazten dieten frustrazioa edota preso dauden senarrak askatu arte euren zain egoteko emakumeei ezartzen dieten betebeharrak soziala eragin bikoitz horren adibide dira. «Emakumeen aldeko eta okupazioaren aurkako auzien inguruan batera egin behar dugu lan», esan zuen Manal Tamimi aktibistak –Nabi Saleh herrian indarkeria eza oinarri hartuta lan egiten duen Erresistentzia Batzordeko bozeramailea da–.

Basauriko topaketetan izandako hiru emakume palestinarrek argi azaldu zuten borroka biderik eraginkorrena emakumeen jabekuntza bultzatzea dela. «Gainera, baliabide mugatuak ditugunez, andreek formakuntza jaso eta gero beren herrietan lan egin dezaten saiatzen gara», ziurtatu zuen Ohaila Shomar Emakume Guztiak Elkarrekin Gaur eta Bihar (SAWA) elkartearen zuzendariak. Arabieraz «elkarrekin» esan nahi du *sawa* hitzak, eta, hala, elkarrekin eguneko 24 orduetan eskuragarri izaten den telefono bidezko aholkularitza zerbitzu bat du. Doako 121 telefono zenbakiaren bidez, edozein indarkeria salatzeke deitzen duten emakume eta umeei laguntza psikologikoa eta lege aholkularitza ematen diete, beti modu anonimoan. «Milaka dei jasotzen ditugu, gehienak etxean

gertatutako bortxakeria kasuak salatzeke, batzuk oso gogorak. Jendarte palestinarrek etxeko indarkeriatzat hartzen du, familia gaitzat. Auzia arlo pribatutik publikora aterata eta arazo sozial bihurtzea lortu behar dugu», nabarmendu zuen Shomarrek. «Gainera, ezin dugu ahaztu ez dagoela inolako babes sistemarik kasu hauetarako, emakumeek behar duten babesa ziurtatzetik oso urrun gaude oraindik».

Bestalde, herrixka bakoitzeko beharrak zeintzuk diren jakiteko datu-base bat ere garatu dute, datuak sailkatzeke hamabost indarkeria mota bereiziz. «Dei gutxiko lekuetara ere joaten gara geure burua ezagutzera emateko». Izan ere, leku batean dei gutxi baldin badira, herrian erakundearen berri ez dutela uste dute, ez indarkeriarik ez dagoela. Gazteak ere kontuan izaten dituzte, haiek baiti-

«Alde batetik, besteak bezala patriarkala den jendarte palestinarrean, emakumeen aurkako indarkeria dago. Bestetik, Israelek inposatzen duen ‘apartheid’ sistemaren ondorioak daude»

«Estatus Pertsonaleko Legeak ez du emakume eta gizonen berdintasuna aintzat hartzen. Gainera, alor horretako auziak ez dira auzitegi zibiletan epaitzen, xaria oinarri dutenetan baizik»

ra etorkizuneko gakoa. «Hel-duen jokaera aldatzea zaila izaten da, horregatik, jendarte hori eraiki nahi badugu, gazteekin landu behar ditugu giza eskubideak», adierazi zuen Shomarrek.

JARDUERARIK GABEKO PARLAMENTUA

«Emakumeen bazterketan garrantzi handia duen esparrua da legedia». WCLAC zentroak argi

Joan den asteburuan Basauriko emakumeen etxean izandako bilkuran esperientziak eta kezak partekatu zituzten Palestina eta Euskal Herriko feministek. Virginia ENEBRAL

ikusten du hori, eta, horregatik, aholkularitza eta laguntza juridikoa eskaintzen die emakume palestinarrei. «Estatus Pertsonaleko Legeak ez du emakume eta gizonen arteko berdintasuna aintzat hartzen. Gainera, alor horretako auziak ez dira auzitegi zibiletan epaitzen, xaria edo lege islamiarra oinarri duten epaitegietan baizik», azpimarratu zuen Zaherrek.

Emakumeen eskubideen aldeko taldeek legeria eraldatzeko proposamenak egin arren, ezinezkoa izan zen Palestinako Parlamentuan aldaketok gauzatzea, Hamas eta Al-Fatah alderdien arteko desadostasunen ondorioz. «Zuzenketak izoztuta geratu dira». Itxaroten geratu beharrean, ahalegin guztiak abokatu eta epaileen formakuntzara bideratu dituzte. «Legeei ikuspuntu feminista eman nahi diegu, kode penala emaku-





meen aurka ahalik eta gutxien ezar dadin».

WCLAC zentroak, baina, ez ditu okupazioaren ondorioak ahazten, eta, hala, kolono edota soldadu israeldarren indarkeria jasan duten emakumeen kasuak ere biltzen ditu. «Ezin dugu alde batera utzi militarizazio bortitz baten menpe gaudela».

ERRESISTENTZIA BAKETSUA

«Gure existentzia erresistentzia da», aldarrikatzen du Shadia Mansour hip hop abeslari britainiar-palestinarrak, eta horixe bera da Nabi Saleh herriko biztanleen apustua. Ramallah hiritik 20 kilometrora kokaturiko herrixka horretan orain dela sei urte kolonoek iturburu bat bereganatu zutenetik, ostiralero manifestazio bat egiten dute emakumeek, gizonetakoek eta umeek. Indarkeriarik erabili gabe. «Palestinarrak mundu osoan izan gara kritikatuak, terroristak edota bortitzak garelako argudiatuz. Nahiz eta guk biolen-

tziarik erabili ez, Israelgo agintariek armekin erantzungo dutela frogatu nahi dugu. Horrela, nazioarteko komunitateari mezu bat bidaltzen diogu: arazoa okupazio da», ohartarazi zuen Manal Tamimik Basaurin.

Indarkeria ezaren aldeko apustuak emakumeengan ere badu bere aparteko eragina. Senarrak lan egitera herritik kanpo joaten direnean, kolonoek emazteak etxean bakarrik geratzen direla aprobetxatu eta herrixkari eraso egiten diote. Eta ez hori bakarrik. «Imajinatu zer den egunero-egunero zure senarrari, neba-arrebei, seme-alabei, lagunei... zer edo zer gerta dakiekeen beldurrez bizitzea. Edota baita zure buruari ere, noski. Gainera, kolonoek sexu jazarpena mehatxu bezala erabiltzen dute, manifestazioak bertan behera utz ditzaten herritarrek. Andreak zapaltzen dituzte gizonak zigortzeko, beloa edota arropak kenduz, edota atxilotu eta bortxatuko dituz-

Palestinaren eta Euskal Herriaren artean josi nahi den kooperazio sareari hainbat puntada eman zaizkio Basauriko hitzorduan. Aurrera begira elkarlanean segitzeko asmoz betiere.
Virginia ENEBRAL

tela mehatxatuz. Noizbait gertatuko balitz ez litzatekeela lotsagarria izango defendatzen dugu guk», aldarrikatu zuen Tamimik.

Nabi Saleh herriko biztanleek argi dute indarkeriarik gabeko erresistentziarekin jarraituko dutela. «Oso gogorra da, baina palestinarrak izate hutsagatik prezio altua ordaintzen dugu jada. Beraz, hobe borrokatuz ordaintzen badugu!». Momentu oro irribarretsu agertzen zaigun borondate hautsezineko emakume

«Gure existentzia erresistentzia da», aldarrikatzen du Shadia Mansour hip hop abeslari britainiar-palestinarrak. Horixe bera da Nabi Saleh herrixkako biztanleen apustua

«Imajinatu zer den egunero-egunero zure senarrari, neba-arrebei, seme-alabei, lagunei... zer edo zer gerta dakiekeen beldurrez bizitzea. Edota baita zure buruari ere, noski»

honek Marthin Luther King berak ezagun egindako hitzak bereganatu eta «amets bat» zuela onartu zuen: «Egunen batean munduko beste hainbat herritan duten ohiko bizimodua izatera heltzea».

ESTATU BAKARRA

Indarkeriarik gabeko erresistentziaren bidean, palestinarrak bitarteko boteretsua proposatzen dute: Israeli boikot ekonomiko, politiko, kultural eta akademikoa egitea bultzatzen duen nazioarteko BDS kanpaina. Horri lotutako bestelako mugimendu bat ere bada, One Democratic State (ODS), gatazkaren konponbiderako gako estatua demokratiko bakarra eratzea dela defendatzen duena. Nabi Saleh herrian bat egiten dute ideia horrekin. «Gure lurralde historikoen %22 soilik kontrolatzen ditugu egun, eta, gainera, kolonoen errepideak, hesia eta gainontzeko guztiak kenduta, lurren %2 bakarrik geratuko lirateke. Gure gune erlijiosoetara joatea ezinezkoa litzazuke muga horiek onartuta, baita aireportu edota itsasora irteera izatea ere. Izan ere, Israelek jarraituko luke mugen gaineko kontrola izaten, ez guk».

Tamimik Palestina judu, kristau eta musulmanak elkarrekin bizi izan diren lurraldea dela gogoratu zuen. 1890eko biltzar sionista ospatu zen arte. «Baldintza berak ditugun bitartean, mugarik gabe, askatasun berdinekin, pertsona bakoitzeko boto banarekin, ez da arazorik izango, ezta izena erabakitzerako orduan ere. Azken batean, herri demokratiko batean biziko gara».

Mariaenean igarotakoak intentsitate handiko bi egun izan ziren. Euskal eta palestinar elkarteek elkar ezagutu eta lan, kezka eta ikuspuntuak partekatu ondoren, etorkizunera begirako konpromisoak etorri ziren; alegia, palestinar gatazka feministaren bozgorailu izatea, bertako emakumeek jasaten duten indarkeria salatuz eta palestinar herriaren askatasuna aldarrikatuz. Gurari bakarra geratu zen betetzeko: Ohaila Shomar, Manal Tamimi eta Sawsan Zaherrek Euskal Herriko elkarten proiektuak aurrez aurre ikusteko aukera izatea.

OHAILA SHOMAR, MANAL TAMIMI ETA SAWSAN ZAHER

PALESTINAKO MILITANTE FEMINISTAK

«Gure askatasunean sinisteak ematen digu indarra»

Atze-oihala okupazioa delarik, Ohaila Shomarrek, Manal Tamimik eta Sawsan Zaherrek erakunde feministetan egiten dute lan Palestinan, sexuen arteko parekidetasuna lortzeko helburuarekin. Entzutea, aholkularitza eskaintzea edota emakumeen ahotsa entzunaraztea: dena da erresistentzia.

Zergatik da hain garrantzitsua elkarte feministek Palestinan egiten duten lana?

Shomar: Feminismoa zer den jakin ez arren, emakumeok paper garrantzitsua izan genuen aurreko bi intifadetan. Bigarrenaren ondoren, ordea, emakumeen mugimenduak atzerantz egin zuen. Hala ere, bestelako jendarte mota bat eraikitzea posible dela aldarrikatzen dugu oraindik ere.

Zaher: Egia da. Ez dugu hori errepikatzerik nahi, eta, horregatik, elkarte feministen lana beti garrantzitsua izan bada ere, orain askoz gehiago da. Palestinar estatuaren aitormena lortzea dugu helburu, trantsizioan murgilduta gaude, baina demokrazia ezin da inolaz ere emakumeen eskubideak sustatu gabe eraiki.

Tamimi: Dudarik gabe. Bidea luzea da eta gu urratsez urrats aurrera goaz, palestinarren eta emakumeon askatasuna lortu arte.

Zer-nolako eragina dauka okupazioak emakumeengan?

Tamimi: Bikoitza. Alde batetik, okupazio orok edozeinengan daukana, eta, bestetik, emakume izate hutsagatik jasaten duguna.

Zaher: Ez da bakarrik bikoitza, baizik eta, genero-rolak direla eta, ezberdina ere bai. Etxeak suntsitzen dituztenean, andreen lurraldea hondatzen dute, baserri guneeetan batez ere. Ezin dugu ahaztu, era berean, jendarte patriarkal batean bizi garela eta soldadu israeldarren gizon palestinarekiko indarkeria emakumeok ere pairatzen dugula. Beraz, okupazioa bikoitza edo hirukoitza dela esan genezake.

Shomar: Bat nator, andre palestinarek aldi berean jasaten dute Israelen eta gizonen okupazioa.

Nola ikusten duzue emakumeen aurkako indarkeria agenda politiko matxistak lehentasuna okupazioari ematen dionean?



Virginia ENEBRAL

Zaher: Kolonizazioaren, okupazioaren zein *apartheid* sistemaren menpean bizi izanda, emakumeen eskubideen aldeko borroka bigarren mailakotzat jotzen da. Lehenengo auzia independentzia da; gero gaude gu. Gizonak ez dute borroka biek batera joan behar dutela ulertzen.

Shomar: Izan ere, andreen arazoak ez dira aintzat hartzen, nazioa baita lehentasuna.

Tamimi: Zoritxarrez, horixe da gertatzen dena. Hala ere, indarkeria biak ezin ditugu guztiz bereizi, hainbat lotura baitaude bien artean

Eta gatazkaren baitan gertatzen diren ausazko atxilotetak...

Zaher: Ez dago palestinari bakar bat ere familiako norbait kartzelan ez duenik, ezta izango ez duenik ere. Gainera, presoak trukerako txanpon gisa

erabiltzen dira Palestina eta Israelen arteko negoziazioetan. Eta nola egiten diote horri aurre andreek? Gizonezkoak direnez atxilotu gehienak, emakumeek denbora luzea igarotzen dute bakardadean, zaintze lanak haien gain hartzera behartuta daude eta ezin dira dibortziatu; gainera, ikasteko edota etxetik kanpo lan egiteko aukerak urriak dira. Eta horrek guztiak dituen ondorio emozional eta psikologikoei buruz inor gutxi aritzen da.

Tamimi: Seme-alabak atxilotzen dituztenean amarentzat erabat gogorra izaten da. Eta aukera hori dagoela pentsatze hutsa ere bai. Nire semearen klaseko 13 urteko mutil koskor bat atxilotu ostean, semea hurrengo bera izango zela pentsatzen bizi izan zen luzaroan. Beldur hori ikusteak nahigabetu egiten zaitu. Nire segurtasunak ez dit axola, baina seme-alabenak bai.

Hain muturrekoa den egoeran nola mantentzen duzue borrokarako grina?

Zaher: Zaila da hain gogorra den egoera batean esperantza mantentzea, baina, borroka, borroka besterik ez delakoan gaude, aurrera jarraitzea besterik ez zaigula geratzen.

Tamimi: Ez da batere erraza, bereziki umeak inguruan direnean. Ni naiz haien eredua; beraz, haien aurrean negarrik ez egiten saiatzen naiz. Egunen batean pertsona askeak izango direla eta beste edozein umek bezala denbora jolasean pasatuko dutela pentsatu nahi dut. Sinesmen horrek ematen dit indarra. Oraingo sufrimendu eta nekeak ez du garrantzirik ametsa errealitate bihurtuko bada. Aurrera egitea da, beraz, aukera bakarra.

Shomar: Palestinarrak gara eta badakigu maitasuna eta amestea zer den.

IRRATIA, UMEEN LAGUN

Garabidean diren herrietan funtsezkoa da irratia haurren eskubideak aldarrikatzeko

 **JENDARTEA /** Ainara Lertxundi

Irratiak betetzen duen funtzio soziala nabarmenagoa da garabidean dauden herrietan. Plan Internacional gobernuz kanpoko erakundeak hamar urte daramatza haurrak eta gazteak protagonista dituzten irratsaio komunitarioak sustatzen Afrikan, Asian eta Amerikan. Helburua oso argi dute: haurren eskubideak aldarrikatzea.

Pasa den otsailaren 13an Irratiaren Nazioarteko Eguna ospatu zen. Irrati uhinek gure egunerokotasunean laguntzen gaituzte. Batzuek esnatzen diren bezain laster pizten dute irratia, ia-ia begiak zabaltzen gabe. Beste batzuek geroxeago, lehenengo kafea edatearekin ba-

tera. Eta beste batzuek, eskolako edo lanerako bidean. Albistak, musika, eztabaidak... Entrenigarria izateaz gain, badu funtzio sozial bat ere irratia, gainontzeko hedabide guztiek bezala. Irratiaren Nazioarteko Eguna-ren kariatara, Plan Internacional gobernuz kanpoko erakundeak irratia komunitarioek umeen he-

ziketan nahiz formakuntzan duten garrantzia nabarmendu nahi izan du, batik bat garabidean diren herrietan. «Informazioaren demokratizazioa da garabidean diren herrien erronka nagusietako bat, herritar askok ez baitituzte komunikabideak eskura. Hori hala izanik ere, familien %75ek irratia bat dute. Afrikako Mendebaldean, esaterako, eskolak itxiaz ziztuzten ebola izurriteagatik. Eskolara joaterik izan ez duten ume horientzat irratia funtsezko bitartekoa da, ikasketekin jarraitzea ahalbidetu baitie», plazaratu du txosten batean Plan Internacional erakundeak. 1995etik, umeei espresuki zuzendutako 200 programa ipini ditu martxan aipatu gobernuz kanpoko erakundeak. 350.000 ume eta gaztetxo inguruk parte hartu dute horietan.

Irratiak beraien arazoez mintzatzea eta, are garrantzitsuago, beraien ahotsa eta iritzia adieraztea ahalbidetu die haur eta gazteei. Tratu txarrei edo behartutako ezkontzei buruz eztabaizatzeko aukera eskaini die. Eta dagozkien eskubideak aldarrikatzeko eta defendatzeko tresna boteretsua ere bada.

HONDAMENDIEI AURRE EGITEKO TRESNA

«Umeen eta gaztetxoek parte hartzea eta ahalduzko sustatzeko ezinbesteko tresna da irratia. Bitarteko horri esker, helduek etxeko txikiak iritzi eta kezak ezagut ditzakete, eta horiek errespetatuz har ditzakete erabakiak. Askotan, umeen ikuspuntuak kontuan izan gabe hartzen dituzte beraien bizitzaren gaineko erabaki garrantzitsuak bai gurasoek bai agintariek. Adierazteko askatasuna bera ukatzen zaien neskato asko ikusi ditut espresuki debekatu dizkieten gaiei buruz eztabaizatzeko irratia programei esker», nabarmendu du Plan Internacional erakundeko aholkulari Nigel Chapmanek. Bere hitzetan, «ikerketak egiteak, beraien iritzi propioak garatu eta zuzenean plazaratu behar izateak segurtasuna ematen die».

Quynhek 17 urte ditu. Vietnam bizi da bere izebarekin. Gurasoak Koreara joan ziren lan egitera eta bizitzera. Banaketak eta



bakardadeak tristura handia eragin zioten. Irratiari esker bere lekua berreskuratu zuen, baita bere buruarenganako konfiantza ere. «Asko ikasi dut nire programa propioa aurkezten. Kalitatezko edukiak ekoizten eta informazio iturri anitzak erabiltzen ikasi dut. Arazoa dagoen lekura joan eta bertakoekin hitz egiten dut. Errealitate eta pertsona desberdinak ezagutu ditut. Horrek ikuspuntu zabalagoa eman dit. Jende askok bere bizipenak partekatu ditu nirekin; orain ez naiz hain bakarrik sentitzen», azaldu du.

Naturak eragin ditzakeen hondamendiak aurreikusteko eta horiei aurre egiteko ere erabilgarria da irratia. Sindyk 13 urte zituenen, «Stan» urakanak bere komunitatea txikitu zuen El Salvadorren. Bi urte geroago, «Ida» ekaitz tropikalak kalte handiak eragin zituen zonaldean. «Eskolak babesleku bihurtu ziren. Guk ikastetxeko irratia baliatu genuen kalteen gaineko informazioa eman eta kaltetuen galderak erantzuteko», gogora ekarri du.

Astean behin duen irratsaioan, hondamendiei aurre egin ahal izateko informazioa ematen du Sindyk. Aldez aurretik segurtasun neurriak hartzearen garrantziaz kontzientziatu nahi ditu herritarrak. Horretarako, harreman estua du zonaldeko sei komunitateekin. Irratsaioa 3.000 biztanleengana iristen da. «Behin gure komunitateko Babes Zibileko koordinatzailea elkarriketatu nuen. Espero dut eman zituen aholkuak larrialdien gaineko kontzientzia areagotu eta biziak salbatzeko lagungarri izatea», nabarmendu du.

Ebolaren izurriteari aurre egiteko ere baliagarria izan da irratia Mendebaldeko Afrikan. Batetik, gaixotasunaren berri emateko, eta, bestetik, ikasleek ikasketekin jarraitu ahal izateko. Ebolaren ondorioz, hamaika eskola itxi dituzte. «Larrialdietako irratsaioaren baitan eskaintzen den hezkuntza programa entzuten dut. Ikasketekin jarraitzeko dudak modu bakarra da. Nire ama langabezian dago, eta, hortaz, ezin dizkit eskola partikularrak ordaindu. Irratia da ikasteko gelditzen zaidan bide bakarra.



Ezkerreko orrian, Myanmarko bi ume irratian eguraldiari buruzko informazioa entzuten. Alboan, Myanmarko eskola batean ikasleak larrialdi simulazio batean parte hartzen; zer egin jakiteko aholkuak, irratiz jasotzen dituzte. Behean, El Salvadorko irratikomunitario bat.

PLAN INTERNACIONAL



Plan Internacional erakundeak Asiako, Afrikako eta Amerikako 51 herrialdetan lan egiten du umeen defentsan. Haurren osasun eta hezkuntza eskubideak bermatzen saiatzen dira

«Eskolak babesleku bihurtu ziren urakana eta gero. Guk ikastetxeko irratia baliatu genuen kalteen gaineko informazioa eman eta kaltetuen galderak erantzuteko»

Gainera, ez kutsatzeko ematen dituzten aholkuak entzuten ditugu familian», dio Mariamak, Sierra Leonako 14 urteko gazteak.

Mariamak aipaturiko programak «Eskola irratian» du izena. Unicefek eta Plan Internacional gobernu kanpoko erakundeak garatu dute, Sierra Leonako Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia Ministerioarekin lankidetzan. Proiektu horri esker, irakasleek

uhinen bitartez ematen dituzte eskolak. «Ume eta gazte guztiak animatzen ditugu irratian proiektuak bultzatu eta sustatzera, Guatemalan, Vietnamen, Nikaraguan edota ebolak hain gogor astindutako herrialdeetan bizita ere. Gobernuak horrelako ekimenak legez babestu beharko lituzkete», nabarmendu du Stefanie Conrad gobernu kanpoko erakundearen aholkulari orokorrak.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Jabegoa eta gainbalioa bereizi

Pasa den otsailaren 12an eta 13an hainbat kontu interesgarri entzun ziren Donostiako Carlos Santamaria zentroan (UPV/EHU), Donostiako Udalak, Arkitektoen Elkargoak eta Arkitektura Eskolak antolatutako Agora hirigintza kongresuan. Bereiki, lurzoru puska baten jabe hutsa izateagatik aberatsa bilakatzeko Espainiako Estatuko ohitura zabalduarekin apurtzeko beharra. Horretarako, bereizketa sinple bezain eraginkor bat ezarri beharko litzateke jabegoaren eta hirigintza gainbalioaren artean. Dagoeneko oso barneratuta daukagun arren, urbanizagarri sailkatutako partzela baten jabe izateak berez ez lukeelako zertan ekarri aberats bihurtzeko eskubide automatikorik.

Esandako bereizketa gauzatzeko modu bat litzateke urbanizazio prozesutik eratortzen diren gainbalioak bestelako proportzio batean banatzea. Akaso, aldrebes: gaur egun Udalek gainbalioen %10-15 soilik eskuratzen badute, %85-90 jasotzea. Edo, beste aukera bat litzateke, gainbalioen ehunekoekin jolastu barik (horrek azkenean gehiago eta gehiago eraikitzea bultzatzen baitu), jabe pribatuen eraikigarritasun lukratiboa kopuru jakin batera mugatzea, eta, kopuru horretatik gorako eraikigarritasun guztia (gehiago eraikitzea beharrezkoa izanez gero), zuzenean Udalaren ondarrera igarotzea.

Frantziako Estatuan bada higiezin espekulazioaren aurkako antzerako mekanismo bat XIX. mendetik, «préemption» delakoa, Administrazioarentzat tanteo eskubide

bat dakarrena, eta ohiko desjabetzea baino eraginkorragoa dena. *Préemption* tresnaren bidez Administrazioak ez baitu zuzenean esku hartzen lurzoruaren jabegoan (desjabetzeekin gertatuko litzatekeen bezala), baizik eta lurzoruaren salmentan, hura erosteko lehentasuna ematen diolako. Salerosketaren prezioa, gainera, ez du saltzaileak nahi bezala ezartzen, etorkizuneko mozkinari begira: Estatuaren ondarea kontrolatzen duen France Domaine zerbitzuak baizik.

Eta Frantziako beste mekanismo interesgarri bat da 1975ean ezarritako *Plafond Légal de Densité* edo Dentsitate Sabai Legala, zeinak, arestian esandakoaren harira, eraikigarritasun gehieneko bat ezarri baitzien partzela guztiei: 1 m²/m² (1,5 m²/m² Parisen). Kopuru horiek 1983an bikoiztu baziren ere, muga argi bat ezarri zioten lurzoruaren jabeak lortutako gainbalioari, muga horretatik gora udal tasa bat ordaindu behar delako. Alegia, partzela jabearena izanda ere, eraikigarritasun guztia ez da (musu truk) berea.

Ez da harritzekoa halako neurriak gauza publikoaren alde apustu egiten duen Frantzia bezalako estatu batean egotea. Izan ere, espainiar lurraldea ez bezala, frantses lurraldea frantziar guztien ondare komuna da, legez (Hirigintza Kodea, L110 artikulua). Espainiako Estatuan, ordea, jabe pribatuari eman zaio urbanizazio prozesuaren ekimen nagusia, Francok 1956ko Lurzoruaren Legea egin zuenetik, eta, horrela, hirigintza plangintza haren mozkinak ziurtatzeko asegaru edo berme bat baino ez da. Izan beharko litzatekeenaren aurkakoa. •



Ilustrazioa: Unai FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Hauteskunde ziklo bat baino askoz ere gehiago

Hortxe dago. Hauteskunde zikloa ate joka dugu: martxoan da lehen hitzordua, Ipar Euskal Herriko kantonamendu (berritu) guztietan. Eta maiatzean Hego Euskal Herrian izango da bigarrena. Lau urte pasa dira aurreko udal eta foru hauteskundeetatik.

Gatazkaren konponbiderako egindako ahaleginari oso lotuta egon zen hauteskunde zikloa hura: ETaren su-etena, Bilduren fenomeno, Aiete, borroka armatuaren amaiera, alde bakarra eseri zen Osloko mahaia... Lehen-txeago, 2005-2007 arteko prozesuaren amaieraren ondotik, ezker abertzaleak egindako eztabaida estrategikoan dago abiapuntua. Ondoren, erabakitako birformulazio horrek, estatuen borondate falta dela-eta, aldebakartasuna eta independentziarantz dekantazioa hartu ditu erreferentzia (Euskal Bidearen azken dokumentuan nabari da); neurri batean, maila teorikoan oraindik ere, estatuek behartzen duten blokeo egoerak –ondorioen aterabidea muturreraino zailduz– eta bertako ezintasunek zein inertzien behar besteko indarra askatzea oztopatzen baitute. Igarotako guztiak eta bata bestearen ondotik etorriko diren erronkek hainbat ikasgai, galdera eta hausnarketarako kontu dakartzate. Hona, egitura gabe, kasik bat-batean, errenkan ateratako sorta bat:

1.- Ezker abertzalearen estrategia aldaketa ezin da soilik ETak borroka armatua amaitu izanarekin identifikatu. Estrategia aldaketa ezker abertzale osoari eta ezker abertzaleko eragile bakoitzari zegokion/dagokio.

2.- Ezker abertzaleak eta harekin aliantza estrategikoak egin dituzten beste indarrek fronte zabala errealtate bilakatzea izango dute helburu nagusietako bat.

3.- Erronka politiko orokorrari dagokionez, herri prozesua egituratzea izango da gakoa, herriaren babesak eta aktibazioak soilik eragin baitezakete indar harremanetan.

4.- Aldaketak bideratzeko baldintza objektiboak izan badira. Nafarroan sortutako aukera eta Ipar Euskal Herrian egindako urratsak, esate baterako, inoiz ez bezalakoa dira. Horiek horrela, prozesu honetan, garai bateko epikaren izenean, deseroso egotea umekeria politiko hutsa da.

5.- Lorpenak, epe laburrekoak zein luzekoak, izatekotan, estu eta larri eskuratuko dira. Aldaketa gogoarekin –inolako indar politikorekin identifikaziorik izan gabe ere– bat egiten duten eragile sozialek, herri sektoreek eta aldarrikapen zehatzen inguruko taldeek oso kontuan hartu beharko lukete hori, aldaketa aukerak eskaeretan eta zorrozkierian ito gabe. Aldaketari ekarria egitea litzateke desiragarriena. Beharbada, 80ko hamarkadako ezker abertzaleak gaur oro irizpide politiko orokorraren mende behar

baino gehiago jarri zuen. Hori bai, kontrako joerak ere –hau da, aldarrikapen, betebeharrak edota gai bakoitza aldaketa estrategia orokorra fiskalizatzeko erabiltzea– ondorio oso txarrak izan ditzake. Kontraesanak eta ezintasunak izango direnez, aurrebaldintzak baino, esan bezala, ekarpenak beharko dira. Prozesu orokorrak ezin dezake herri mugimenduen, sindikatuen edota eragile sozialen erabateko autonomia zalantzan jarri, baina norberaren lehentasunek ezin gaitzakete prozesu eratzailerik gabe utzi. Dialektika, otoi.

6.- Erabakitze eskubidea prozesuaren lanabes nagusitzat jo dezakegu. Gainera, herritarren atxikimendua eta aktibazio lortzen ari da, Gure Esku Dago ekimenaren bitartez. Askotariko jendea hurbildu da, zenbait indar politikoaren dinamiketarik kanpokoak. Beharbada, eremu berri bat denez, hipoteka gehiegirik gabe jaio da. Jada existitzen ziren mugimendu eta lan eremuak arazo handiagok izaten ari dira ziklo politiko berriak eskatutako beste-lako praktiketara egokitzeko.

7.- Errelatoaren bataila funtsean bataila politikoa da, sentipenak dantzan jartzeko erabil daitekeen beste edozein konturen gainetik. Gatazkaren sorburuaz eta erreforma frankistak ekarritakoaz ari gara, alde batetik, eta atzera begiratuz beste etorkizun bat eraikitze aukeraz, beste batetik. ETari izaera kriminala leporatuz kontakizun faltsu bezain sektarioa eraiki nahi dutenek bataila galduta dute Euskal Herrian. Hori gailentzea bai litzatekeela hondamendia. Bestelako kontua da ETak berak eta borroka armatuaren zilegitasunean eta eraginkortasunean sinetsi dutenek beste muturreko tesia erabat nagusitzea helburutzat izatea. Hori ere ez da pasako. Borroka moldeen erabilerari buruz ezker abertzaleak bere ikuspuntua(k) izango d(it)u, baina ez zaio komeni ahaztea fase honetan eragindako kaltearen aitortzean eta elkarbizitzan aurrera egin beharko dela, Euskal Herriaren geroaren mesedetan. Eta gogoeta horrek berdin-berdin balio du aliantza politikarako. EH Bilduren bueltan osatu nahi den fronte zabalak, hala bada, ezingo du bere horretan estrategia politiko-militarra ondartzat hartu. Ezker abertzale osoak, baita borroka armatuarekin bat egin zutenek ere, hori asumitu behar dute. Aldi berean, beste familia politikoe-tatik –autonomismotik, ezker estatualistatik edota ezker abertzaleko zatiketetatik– fronte zabalera gehitu diren edo gehitu daitezkeen beste sentsibilitateek asumitu beharko dute ezker abertzaleko inork ez duela bere buruaz arnegatuko, ez diela Argalaren edo Txominen hilobieiei turrik egingo. Bitartekoak gorabehera, herri ukazioari aurre egin izanak gaur egungo aukera ekarri duela pentsa dezakete denek, bakoitzak bere ibilbidetik. •

INJERENTZIAK EUSKARAN

Espainiar eta frantses gobernuen erasoei erantzun bateratua emateko deiadarra

📁 JENDARTEA / Maider Iantzi Goienetxe

«Oztopoen gainetik, euskaraz biziko gara», leloa izanen du gaur 17.30ean Donostiako Gipuzkoa plazatik abiatuko den manifestazioak. Kontseiluak antolatu du, helegiteak helegite gure hizkuntzaren alde pauso ausartak ematen segitzen duten udalak txalotu, babestu eta bertze udal eta instituzioei determinazio hori kutsatzeko helburuarekin.

Gure hizkuntzan ez dira berriak estatuen injerentziak. Orain dela hamabi urte “Euskaldunon Egunkaria” itxi zuten. Joan Mari Torrealdaireren “Libro negro del euskera” edo David Anauten “Euskararen kate hautsiak” lanean agertzen den bezala, hizkuntza gatazka botere gatazka dela azpimarratu du Kontseiluko idazkari nagusiak, Paul Bilbaok.

Azaldu duenez, estatuek beren hizkuntzak hegemonikoak izatea nahi izan dute beti eta hori bermatzen saiatzen dira. Adibidez, gaur egun Estatu espainiarrean 500 arau baino gehiago daude gaztelaniaren erabilera derrigortzeko. Estatu frantsesaren kasuan, eremu guztietan frantsesa erabili behar dela ezartzen du legeak. Estatuen logika horretan, beti egon izan da erakustea beraiek dutela eskumena zer-nolako hizkuntza politika garatu behar den erabakitzeko.

Hego Euskal Herrian, edozein arau, neurri edo dekretu onartzen bada, beti izan behar du espainiar Konstituzioaren oniritzia. Hor ikusten da Estatuak erraten duela «bai, badaukazue eskumena gauza batzuk erabakitzeko, baina nik daukat azken hitza». Bilbaoren hitzetan, injerentzia estrukturala da.

Azken urte eta erdian edo bi urteetan, espainiar Gobernuak are modu bortitzagoan erakutsi nahi izan du bere esku hartzea. Udalekin hasi zen, euskarari buruzko aktak bidaltzeko errekerimenduak egiten, euskararen gaineko erabakiren bat hartzen

bazen horren berri jakin nahi zuten... Orduan, udalak kontratazioetan hizkuntza irizpideak ezartzen hasi ziren, eta horiek ere eskatu zituen Gobernuak; are gehiago, udal batzuei euska-

Kontseiluak elkarretaratzeak deitu zituen herrietan Urquijoren helegitea jaso zuten udalak babesteko. Irudian, Erandio, joan den apirilaren 9an.
Luis JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

ra plana ere eskatu zien. Alde batetik, modu sinbolikoan esateko «aizue, nire eskuetatik pasatu behar dira zuen erabaki guztiak», eta, bestetik, auzibidean jartzeko. Orain dela bi urtetik modu bortitzagoan ari da Gobernua, baina horrek ez du erran nahi aitzinetik deus egin ez denik. Kontseiluaren arabera, Konstituzioa bera da dugun injerentziarik handiena.

ARRAKASTA MOZTU

Wert Legea injerentziazat hartzen du Bilbaok: «Estatua ohartu da hezkuntza dela hizkuntzen berreskurapenerako zutabea eta horra jo du. Wertek argi zuen hezkuntzak izan dezakeen arrakasta moztu behar zela gurea eta

gurea bezalako hizkuntzen normalizazio prozesuan».

Injerentzien gainean ari garenean, Carlos Urquijoren aurpegia datorkigu, baina Kontseiluko idazkari nagusiak ohartarazten duenez, ez da bere erabakia, espainiar Gobernuarena baizik. EAEn duen ordezkaria tresna bat besterik ez da.

Erran bezala, hizkuntza irizpideekin hasi zen, gero euskara planak eskatzen, eta azkeneko fasean udal batzuei jakinarazi die ezin dituztela Gobernu Ordezkaritzara aktak euskaraz bidali. Bilbaok ez du kontu juridikoetan sartu nahi, argi baitu gaia ez dela juridikoa, baina, bere ustez, juridikoki ere ez du arrazoirik, nahiz eta jada epaile batzuek arrazoa eman dioten.



Urquijoren aurpegia datorkigu, baina, Kontseiluak azpimarratu duenez, ez da bere erabakia, espainiar Gobernuarena baizik. «Ez dira ‘urquijokeriak’, ‘gubernukeriak’ baizik»

Badago mezu bat beti igortzen dena: ez duzue askatasunik zuen hizkuntza politika erabakitzeko. Baina azken mezua harago doa: euskarak ez du inolako baliorik

Gobernuak denbora osoan auzitegi-tara jotzen du. Udalak txikiak dira, euskaraz funtzionatzen dute, eta sekulako inbertsioa egin dute euskarak eremu formaletan espazioak irabazteko. Orain, aktak gaztelaniaz ere bidaltzeko eskatu diete. Bilboaren arabera, horrek mezu subliminal bat du: euskarak ez du baliorik.

Bi hizkuntzetan bidaltzeko eskatzen diete euskaraz bidaltzen dutenei, ez gaztelaniaz igortzen dutenei. «Hori da arazoa. Oraingo jardun honekin esan nahi digute: euskara erabili nahi baduzue, aurrera, baina ez dauka baliorik gaztelania ondoan ez badauka. Hori jada beste urrats bat da, euskarari balio ofizial osoa kendu nahi diotelako».

UDAL GEHIENAK, AITZINERA

Udal gehienek aurrera egitea eta aurre egitea erabaki dute, alegia, euskara hutsez bidaltzen jarraituko dute. Epaitegietan sartu beharko dute, horrek dakarren kostu ekonomikoarekin. Baina euskaraz lan egiteko eskubidea dutela defendatu eta aitzinera egiten dute.

Ipar Euskal Herrian ere egitarazko injerentzia ikusten du Bilbaok: frantses Estatuko Konstituzioa eta legeak. Adibidez, orain dela bi urte Hendaia-ko Herriko Etxeak bertako ikastolari egoitza bat ematea deliberatu zuen eta, jarraian, Patrick Dallenès Baionako suprefetak erabaki horri helegitea jarri zion. Uztaritzeko Herriko Etxea ere auzitara eramane zuten euskara ofizial izendatu zuelako. «Egia da epaitegiek ebatzi dutela ez dela legezkoa Uztaritzek egin duena, baina ez dute *motu proprio* jokatu, Uztaritzek erabaki hura hartu zuenean, biharamunean, Gobernuak, bere ordezkariaren bidez, erabaki hori auzitara eramane zuen», argitu du.

Injerentzia dienean horretaz ari da Bilbao: «Estatuek, oso modu kontziente, gure eskubideen alde hartzen diren neurriak auzitan jartzen dituzte denbora osoan».

Bertze adibide bat: Gipuzkoako Foru Aldundiak deliberatu

zuen Kanboko kolegioari diru laguntza bat ematea. Erabaki horri ere helegitea jarri dio Carlos Urquijok eta epaileak arazoia eman dio. Kontseiluaren ustez, jardun horiekin, frantses eta espainiar gobernuak mezu argia igortzen dute: «Ez duzue askatasunik zuen hizkuntza politika erabakitzeko».

«Nafarroan, Gobernuak ez du zertan erabili bertan duen ordezkaria. Zergatik? Nafar Gobernuak jokatzeko duelako horrela. Adibiderik argiena Baztango kasua da. Bertako Udalak onartutako Euskara Plana nafar Gobernuak berak eraman du auzitara».

Joan den abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Mintzodromo berezia egin zuten Donostian, hainbat belaunaldiren artekoa. Duela bost urte sortu zen mintzodromoa Gipuzkoako hiriburuan.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS



BIGARREN MAILAKO HERRITARRAK, GURE ETXEAN BERTAN

Gari Berasaluze Euskara zinegotziak agertu duenez, Zarauzko Udalak urte askoan urrats garrantzitsuak eman izan ditu euskara lan hizkuntza izan dadin eta euskaraz bizi nahi duten herritarrek aukera hori izan dezaten. «Euskara bizi nahi dugula esatea, ordea, muturreraino eramane nahi izan dugu legealdi honetan, euskarari benetako ofizialtasuna emanez, teorian ez ezik, baita praktikan ere». 2012ko urrian Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea onartu zuen Udalak, eta 2013ko martxoaz geroztik bertako kide da Zarautz. 23.000 biztanlerekin, mankomunitateko herririk handiena da, eta horrek hainbat erabakitan aitzindariak izatea ere eskatzen ziela iritzi zioten.

2013ko udaberrian, alderdi guztiekin lanketa sakona egin ondoren, Zarauzko Udalaren hizkuntza irizpideak onartu zituzten, PPren abstentzioarekin baina gainerako alderdi denen aldeko botoarekin. Azken batean, hiru ondorio nagusi nabarmendu zituzten orduan: Udalaren borondatea euskaraz lan egiteko; herritarrekin euskarazko harremana lehenesteko erabakia; eta kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak txertatzea, Udalak

kontratatzeko duen edozein zerbitzutan euskara ere kontuan hartua izan dadin.

Berasaluzek oroitu duenez, lehen alderantziz egiten zen: euskara hutsean aritu nahi zuten herritarrek eskatu egin behar zuten hori. «Horri buelta eman genion, eta Udala euskara hutsean hasi zen herritarrekin, eta elebitan nahi dutenek berariaz eskatu behar dute orduz geroztik».

Urquijok helegitea jarri zuen hizkuntza irizpide haien aurka, beste hainbat udaletan bezala. Zarauzko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berri zuten orduan, eta hizkuntza irizpide haiek EBPN hartan sartu zituzten, baina Lakuaren galbahea pasatuta, hark planok onartzen baititu. Bada, filtroa pasa zuen EBPN hura ere auzitara eramane zuen Gobernu Ordezkaritzak. «Beste hainbat udalen antzera gaude zentzu horretan: euskara benetan ofiziala izateko eta euskaldunak gure herrian bigarren mailako herritar ez izateko benetako politika ausarta eginez gero, oztopoak besterik ez ditugu», ondorioztatu du zinegotziak.

Bere iritziz, euskararen benetako ofizialtasuna dago jokoan, azken batean. «Euskaraz bizitzeko hautua egiten duten

herritarren eskubideak defendatzen baldin baditugu, koherentzia guztiarekin eta muturreraino, ezin dugu aurrera egin. Hor dago koska».

Ikusten dutena da duela 30 urtetik gora euskara ustez ofiziala den herri batean bizi arren, Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundeak, ezin duela hizkuntza politika bere gain hartu, horrek dakarren guztiarekin. «Egin dezakezu egundoko lana urte osoan, hainbat arlotan –Euskara Aholku Batzordea martxan dugu, hiru azpibatzorderekin, eta herriko hainbat eragileren parte hartze aktiboarekin–, baina ez duzu ahalmenik gaztelania hutsean aritzen den ostalariari, merkatariari edo enpresari euskaraz ere egin dezan exijitzeko. Kontzientziario lana eta euskara sustatzeko nahi duzun guztia egin dezakezu, baina inguruan ditugun erdaren erauntsiaren eta datozkigun erasoaren eraginpean, erabat baldintzatuta gaude. Beti izango gara bigarren mailako herritarrak, gure etxean bertan», hausnartu du.

Horri aurre egiteko oihua da Zarauzko Udalarentzat larunbateko manifestazioa, «nahikoa dela eta eskubide osoz euskaraz bizi nahi dugula» aldarrikatzeko ekimena.

Garbiñe Petriati Behatokiko
zuzendaria eta Paul Bilbao
Kontseiluko idazkari nagusia,
Europako aditu batzordearekin
bildu eta gero, urriaren 7an.
Luis JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



DI-DA 30-40 URTE ATZERA EGITEKO ARRISKUA

Euskararekin egiten duten lanaz galdetu, eta «zer esan ere beldur pixka bat ematen du», adierazi du Alaitz Aizpurua Usurbilgo Udaleko Euskara zinegotziak. «Badirudi Urquijo atzetik etorriko zaizula egindako lanak ere hankaz gora jartzera. Usurbilen ez da oraingo apustua, urteak daramatzagu euskararen alde eta euskaraz lanean udaletxean eta udalerri mailan, eta askotan eduki dugun sentsazioa hori izan da, zalaparta ateratzen hasten bazara, atzerapauso ikaragarriak eman behar dituzula Urquijoren mehatxuak direla-eta edo legearen babes faltagatik. Bi kasuengatik askotan».

Usurbilgo Udalak aspaldi funtzionatzen du euskara hutsez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zenetik. «Aktak eta lan tresna guztiak euskara hutsez erabiltzen ditugu. Horrek ez du esan nahi gaztelaniaz egiten ez dugunik, herritarrek edozein dokumentazio eskatzen badute bidali egiten diegu, baina printzipioz eta lehenetsita ez dugu elebitan funtzionatzen». Langile guztiak euskaldunak dira, herritar gehien-gehienak ere bai, orduan, euskaraz egiten dute. Gertatzen dena da iaz edo legegintzaldi honetan lanketa bat egiten denean kontratuetan hizkuntza irizpideak txertatzeko, modu

estandarizatu eta bateratu batean, herritik harago beste indar bat eman nahi zaionean, espainiar Gobernuak helegiteak jartzen dituela.

«Guk hori lehen ere egiten genuen, baina lehen ez zen aktarik bidaltzen Gobernu Ordezkaritzara. Orain, Rajoyren azken legeekin, aktak bidaltzen dituzu. Azken urteetan normaltasun osoz egiten ari ginen hainbat kontutan atzera egiten ari gara», azaldu du. Egoera ikusita, Usurbilen, hizkuntza irizpideen kasuan, ez zuten plenoko erabakirik hartu; besterik gabe, bere egin zituzten hainbat jarraibide eta lan tresna moduan erabiltzen hasi ziren. Beste era batera, baina lehen ere erabiltzen zituzten. Plenoko erabakirik hartu ez zuten, ez zieten helegiterik jarri. Aktei dagokienez, plenoko akta bat prozedurako azken instantzia bada, gaztelaniaz bidaltzea eskatzeak horra iristeko lana ia-ia bi hizkuntzetan egitea eskatzen du, «horrek ekartzen duen guztiarekin. Edo pertsona bat jartzen duzu itzulpenak egiten, edo behartuta zaude bi hizkuntzetan lan egitera, eta denok dakigu bi hizkuntzetan lanean aritzeak euskararen galera dakarrela».

Beharrezko dokumentuak bakarrik itzultzen dituzte gaztelaniara, herritarrek eskatzen dituztenak. Hauen gehiengo handi batek euskaraz

funtzionatzen duenez, ez dute lan asko zertan itzuli. Aizpuruaeren arabera, hor ezbaian dagoen gakoa da, administrazioak behartuta badaude herritarrekin bi hizkuntza ofizialean aritzera eta biak menperatzen badituzte, zergatik behartu behar diren beste administrazioekin gaztelaniaz ere aritzera. Euskara gaztelaniaren ondoan dagoenean da soilik ofiziala. Gaztelaniarekin ez da hori gertatzen. Aktak gaztelania hutsez bidaliz gero, ez da arazorik; kasu horretan ez dute eskatzen euskara ere erabiltzeko. Logika bera erabiliko bagenu, ezingo genuke gaztelania soilik erabili.

Konstituzionalak Euskararen Legearen 8.2 artikulua atzera bota zuenetik, udalek kezka izan dute bermerik ba ote duten euskaraz soilik aritzeko. Erasoak konstanteak dira eta kontua honakoa da: euskararen ofizialtasuna ze puntutaraino dagoen bermatuta eta ze puntutaraino den benetan hala.

Eraso horiek jasan arte, Aizpurua nabarmendu bezala, «harro esaten genuen Usurbilen euskaraz soilik funtzionatzen dugu, dependentziarik ez izatea suposatzen zuen. Baina gaur egun hori esatean pentsatzen duzu akaso beste eraso bat etortzen ahal zaizula hortik. Beldur horrekin ez genuen plenotik pasa kontratazioko hizkuntza irizpideena».

Euskara berez Lakuaren eskumena da eta udalak behin eta berriz saiatu dira mahai gainean jartzen babes juridikorik gabe daudela. Lakuak ez du horretan sartu nahi, gai konplikatua izan liteke, eta garbi gelditu da babes falta.

Alaitz Aizpuruaeren kezka da herritarrek jabetzen ote diren gai hauek duten eraginaz. «Badirudi administrazio erabileraz ari garela eta jendeak ez duela gertatzen ari dena eraso gisa bizitzen, baina honek ondorio latzak ekarriko ditu. 30-40 urte egin genezake atzera di-da batean. Euskalgintza jendartean momentu honetan borroka apala eta isila dela iruditzen zait, ez dut uste euskararen egoera jendearen kezken lehen postuetan dagoenik, zoritxarrez. Manifestazioa eta erantzun bateratu bat beharrezkoak dira. Udal bakoitzak helegiteei erantzun eta bide judizialak abiatuko ditu, baina kalean eta herritarren aldetik ere erantzun behar da. Deiadarra egingo nioke herritar orori, hau ez delako administrazioen borroka bakarrik. Administrazioa gizartearen eredu edo aurretik jartzea da helburua, baina halako eraso bat 30-40 urteko atzerapauso bat izan liteke eta denok egin behar dugu horren aurka. Manifestaziora joatera animatuko nituzke herritarrek. Hau ez da batzuen arazoa, denon arazo bihurtuko da ez bada erantzuten».

500

Honek guztiak hainbat ondorio dituela azaldu du Bilbaok, horietako bat eragileek «behingoz euskarari zentralitatea eman behar diotela eta agenda politikoan sartu behar dutela». “Urquijokeriak” aipatzen dira, baina honek azterketa sakonagoa behar duela ohartarazi du Kontseiluko idazkari nagusiak: «Ez dira ‘urquijokeriak’, ‘gubernukeriak’ dira. Espainiar Gobernuak hartu duen erabaki kontziente bat da». Katalunian, murgiltze sistema-ekin ere gertatzen da. Egun batean bai eta hurrengoan ere bai, epaitegietan daude hizkuntza kontuengatik.

INOR EZ DA SALBUESTEN

Kontseiluaren iritziz, honek erakutsi beharko lieke eragile guztiei (politikoak, sindikalak, sozialak...) «hizkuntza gatazka botere gatazka dela eta euskararen gaia behingoz agenda politikoen erdigunean kokatu behar dela». Batzuetan badirudi euskararena etxeko arazo bat dela, euskaldunen artekoa, askotan hori saltzen da. «Baina ez da egia, hemen estatuek eskua sartzen dute. Eta, gainera, berdin da zein instituzio dagoen tartean; udala edo aldundia izan daiteke, eta Lakuak berak ere bihar lege bat onartuko balu, beren gustukoa ez bada, eta uste badute horrekin euskarak urrats handiak emango dituela, helegitea jarriko dute lege horren aurka. Hemen inor ez da salbuesten kontu honetatik, azkenean estatuaren estrategia delako».

Badago mezu bat beti dagoe-na: ez duzue askatasunik zuen hizkuntza politika erabakitze-ko. Baina azken mezua harago doa: euskarak ez du inolako baliorik. Beste batzuetan erran izan dute: ezin duzue euskara lehenetsi. «Gero eta modu bortitzagoan ari dira. Gero eta larriagoa da, gertaerarengatik baino gehiago horrekin bidaltzen diguten mezuarengatik».

Injerentzia hauek udalak aurrerapauso ausartak ematen ari diren unean gogortu dira. «Hizkuntza eskubideak bermatzeko tresnak abiarazten direnean, gogorarazten digute zei-

nen eskuetan dagoen Damoklesen ezpata».

IRTENBIDEA

Irtenbidea aurkitzeko, ezinbestekoa da Kontseiluarentzat elkarlana. Halako eraso eta oztopoi elkarlanetik erantzun behar zaiela uste du. Epaitegietan ere bai, baina ez epaitegietan bakarrik. Manifestazioetan ere bai, baina ez manifestazioetan bakarrik. Udal hauek erakutsi duten determinazioa txalotu

arautik gora ditu espainiar Estatuak gaztelaniaren erabilera derrigortzeko. Herrialde Katalanetako Plataforma Per la Llengua elkarteak guztiak jaso ditu dokumentu batean.

eta babestu behar dela deritzo Bilbaok. Txalotu, babestu eta beste udal eta instituzio batzuei ere jarrera hori hartu beharko luketela ohartarazi. «Kontua da erakustea bagarela, eta, oztopoak egon arren, euskaraz bizitzen jarraituko dugula». Hor koka-tzen du auzi honen amaiera edo irtenbidea.

Gaurko manifestazioaren xedea da alde batetik udalei babesa adieraztea eta aitortza egitea, ikusteko euskaraz bizi nahi

duen herriak txalotzen duela haien erabakia, eta, bestetik, instituzio gehiago hori egitera bultzatzea. Determinazio hori kutsatzea beste instituzio eta eragileei. «Orain udalei tokatu zaie eraso, baina edonori toka dakioke baldin eta hizkuntzaren berreskurapenerako neurri ausart bat hartzen badu. Honen kontzientzia hartu behar dugu. Estatu arazoa da».

«Guk ere eskubidea izan behar dugu gure hizkuntza politi-

MAITANE MARITORENA

BAZTANGO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA

«Borrokan jarraituko dugu baztandarren eta herri honen hizkuntza eskubide guztiak errespetatuz»

Euskararen aldeko politikan pausoak emanez, Baztango Udalak herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatu daitezen lanean jarraituko duela baieztatu du Maitane Maritorenak Euskara zuzendariak. Eta Nafarroako Gobernuari oroitarazi dio beraiek direla zerbitzu gehienak espainol hutsean eskaintzen dituztenak herritarren hizkuntza eskubideak urratuz.

Euskara zuen lan hizkuntza da departamentu guztietan?

Baztango Udalean euskara da eguneroko eta berezko hizkuntza, bai lanean eta baita herritarrekin dugun hartu-emanean ere. 2011n udaletxean sartu ginelarik Baztango Euskararen Ordenantza martxan paratu genuen, plantilla organikoan hizkuntza eskakizuna txertatu genuen, eta hartu ditugun langile guztiak euskaldun elebidunak dira. Udal langileei administrazio hizkuntzan trebatzeko saioak eman genizkien, alfabetatzeko beharra zuten langileei lanorduetan alfabetatzeko aukera eskaini genien... Horrek guztiak zerbitzu guztiak euskaraz izateko aukera eman digu. Udala ere euskaraz bizitzeko gune izatea lortu dugu.

Zein da Euskara Planaren funtsa eta helburua?

Euskara plana 2014an onartu genuen, baina hori baino lehen, 2011n Baztango

Euskararen Ordenantza betetzen hasi ginen Udaleko zerbitzu guztietan euskara ziurtatuz, udalerrian euskararen erabilera sustatuz, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz, Baztango berezko hizkuntza sendotuz... Ordenantza hauek marko orokor bati erantzuten diote; Euskara Planean, berriz, helburuak zehatzagoak dira, ekintza zuzenak nolabait errateko. Bete beharreko ekintza bakoitzak data jakin bat du planean, arduradun bat, hartzaile jakin bat...

Euskararen Ordenantza etxea izanen litzateke nolabait errateko, babesa eskaintzen diguna, eta teiltupe horretan plangintza bat egin dugu hizkuntza politika planifikatuz, epeak markatuz, konpromiso zehatzak hartuz...

Helburua euskara normalizatzea da, neurri eraginkorrak hartuz herritar guztien hizkuntza eskubideak betetzea; Udala bera eredugarri izatea nahi dugu, bai herritarrek euskaraz bizitzeko duten eskubidean, bai administrazioan ere.

Bide berean doa Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko konpromisoa?

Baztanen biztanleen %70 baino gehiago euskalduna da, beraz, Ueman sartzeko lehen irizpidea betetzen genuen. Uemako kide izateak tokiko administrazioak euskaraz jarduteko eta gizarte arlo orotan

udalerrri euskalduna izateko bidean laguntza, elkarlana, babesa eta indar handiagoa jasotzea dakar. Euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten udalerrriak euskararen arnasguneak dira eta horiek hala irauteko hizkuntza politika aurrerakoi eta ausarta egin behar dute. Udalerrri horietako bat izan nahi zuen Baztanek.

Justu urrats ausartak ematean etortzen dira espainiar edo nafar Gobernuaren injerentziak. Nola hartu duzue Euskara Planari jarritako helegitea?

Guk 2014ko abuztuaren 28ko Osoko Bilkuran onartu genuen Euskara Normalizatzeako Plana eta Nafarroako Gobernuak azaroaren 26an eskatu zigun plana igortzeko. Eskaera ailegatu zitzaigularik susmo txarra hartu genuen, pentsatzen baikenuen Nafarroako Gobernuak ez zuela euskararen aldeko plana eskatu izanen eredu gisa hartzeko (kar-kar). Susmo hori 2015eko urtarilaren 13an bete zen.

Zer eginen duzue aurrerantzean?

Baztango Udalak argi adierazi du abiatutako bidearekin jarraitzeko duen asmoa. Horretarako behar diren baliabide guztiak erabiliko ditugu, euskara normalizatzeako beharrezkoak diren neurri politikoak hartuz eta, bidenabar, eraso hauek salatuz.



da Kontseiluarentzat. Baina ez da nahikoa, batetik azken momentuan UPNk eta PSNk beste mozio bat onartu zutelako eta horren ondorioz nafar Gobernuak erabakiko duelako zenbat ikasle beharko diren ikasgela zabaltzeko (hasieran PSNk ez zuen planteamendu hori egin). Gainera, euskarak ofizial izan gabe jarraitzen du eremu «ez euskaldunean» eta «mistoan». Beraz, Nafarroan ere beste lege bat behar dela deritzo.

ERANTZUNAREN GARRANTZIA

Ipar Euskal Herrian, arazoa da ez dagoela inolako estaldura juridikorik. Jakobinismoaren ondorioz, lege zentralak besterik ez daude. Patrick Dallenesekek Hendaiaiko Herriko Etxearen auzian XIX. mendeko lege bat, 1850. urteko Falloux Legea, baliatu zuen errateko udalak ez zuela eskumenik ikastetxe pribatu bati laguntzeko.

Kontseilua Gasteizko Legebiltzarreko taldeekin bildu da, Laukuarekin ere bai, eta, manifestazioa eta gero, bertze bilera erronda bat hasiko du eragile politiko, sindikal eta sozialekin, egoera hagitz kezkarria dela eta batasunetik erantzutea eta jardutea beharrezko dela ikusten dutelako, bakoitza bere eremutik. «Hori da arrakastarako daukagun modu bakarra. Hauteskundeen zurrunbiloan daude alderdiak, baina ezin ditugu eraso hauek behar bezala erantzun gabe utzi hauteskundeak daudelako». Nabarmendu duenez, garrantzitsua da erantzutea, kontua ez baita hamabi udalek helegiteak jaso dituztela, atzean zer dagoen baizik: gobernuen erabaki kontzientea.

Euskaraz bizi nahi duten herrien mobilizazio eguna, Tafallan, abenduaren 14an.
Jagoba MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Euskararen Eguneko ekimenak Astrabuduan, Erandioko talde euskaltzaleak antolatuta. Luis JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

kak definitzeko, bestela jai daukagu. 500 arau daude gaztelania derrigortzeko, eta, antza denez, ez da nahikoa. Edozein erabaki hartzen denean, auzitara eramaten dute», erantsi du. Ez dagoela inongo babesik ikusten du Kontseiluak. «Egitarazko galga dugu bi estatuetan, konstituzioa, eta horretaz harago ere oso ondo blindatuta daukate guztia gaztelaniaren eta

frantsesaren hegemonia lurralde osoan bermatzeko». EAEko Euskararen Legea aldatzeko beharraren inguruan hausnartzen hasia planteatu du Bilbaok. Legebiltzarren osaera kontuan hartuta, baldintzak ematen direla uste du lege ausartago bat abiatzeko, jakinki gero helegiteak etorriko direla. «Finkatu behar dugu zein marko juridiko izan beharko genu-


keen gure hizkuntza normalizatzeko, bestela denbora osoan ari gara 'hau ez digute utziko'. Guk gurea definitu behar dugu: ze lege behar dugu benetan euskarak askatasunez aurrera egin dezan?». Nafarroan aldaketa txiki bat eman da, eremu ez euskaldunean euskarazko irakaskuntza sare publikoan ahalbidetzen duena. Zalantzarik ez, neurri positiboa

Paul Bilbaoren iritziz, eragile guztiek hizkuntza gatazka botere gatazka dela eta euskara behingoz erdigunean kokatu behar dela ikusi beharko lukete

«Guk gurea definitu behar dugu: ze lege behar dugu benetan euskarak askatasunez aurrera egin dezan?». Lege ausartagoak egitea planteatu du Kontseiluko idazkari nagusiak

OROIMENA IKASGELETAN

Martxoaren 3ko sarraskia ikastetxeetan jorratuko da unitate didaktiko bati esker



 **GIZARTEA** / Ion SALGADO

Arabako hainbat ikastetxetan erabili dute jada Martxoak 3 elkarteak argiraturutako unitate didaktikoa. Miren Rodrigo eta Amanda Ruizek egindako unitateak, eraildako bost langileen oroimena bizirik mantentzea, Gasteizen gertatutako 1976ko martxoaren 3ko sarraskia aztertzea eta gertaerak garaiko testuinguru historikoan kokatzea du helburu.

Duela 39 urte, martxoaren 3an, polizia Gasteizko Zaramaga auzora bertaratu zen San Frantzisko parrokia, langilez beteta zegoena, husteko asmoz. Horretarako, gas negar-eragileak jaurti zituzten barrura poliziek, eta elizan zegoen jendetza ahal bezala saiatu zen bertatik ateratzen. Batzuek leihoetatik egin zuten ihes, beste batzuek ateetatik. Ateratakoan, ordea, poliziak zain zituzten. Herritarretako asko polizien laguntza lortzen

saiatu ziren, jendetza elizatik atera ahal izateko. Baina metraitak hartu eta jendea tirokatzen hasi zen poliziak. Gutxi gorabehera 15 minutu iraun zituen eraso hartan bost hildako eta 60 zauritu larri izan ziren; horietatik 44 bala-zauriekin. Pedro Maria Martinez-Ocio eta Francisco Aznar martxoaren 3an bertan hil ziren; Romualdo Barroso, martxoaren 4an; Jose Castillo, martxoaren 7an; eta, Bienvenido Pareda, apirilaren 5ean.

Zer gertatu zen Zaramagan? Zergatik egin zen langileen batzarra San Frantzisko elizan? Ga-

Xabier Sagasta
marrazkilariak egindako
komikiko biñetak.
MARTXOAK 3 EIKARTEA

raiko Espainiako agintarien bertsio ofizialak –Fraga Iribarne eta Rodolfo Martin Villa besteak beste– Zaramagan bizi izandakoa langileek eragindako gertakaria izan zela dio. Arabako Gobernu Zibilaren arabera, «Ordena Publikoko Indarrek eskura zituzten di-suasio-neurri guztiak erabili zituzten manifestariak mendeen hartu eta sakabanatzeko. Zenbait kasutan, ekintza errepresibo hori ez zen nahikoa izan, autoritatearen agenteen aurkako erasoak oso bortitzak baitziren; eta, ondorioz, airera tiro egin behar izan zuten poliziek. Hainbat taldek istiluak eragiten jarraitu zuten eta poliziak behin baino gehiagotan inguratu zituztenez, poliziek tiro eginez defendatu behar izan zituzten beren buruak».


Madrilgo Gobernuaren bertsioak ez du aipatu ere egiten martxoaren 3a Gasteizen antolatutako hirugarren aldarrikapen eguna zela eta gasteiztarren %80k langileen protestarekin bat egin zutela. Lehenengo bala zau-

rituak Gasteiz Hiribidean izan zirela ere ezkututzen du bertsio ofizialak, poliziak Movosa eta Areitio enpresetako langileen aurka tiro egin zuela esaten ez duen bertsioa berak. Are gehiago, poliziek idatzitako bertsioan Forjas Alavesas enpresako langileek urtarilaren 9an martxan jarritako greba ez da aipatu ere egiten. Hilabete hartan, Gasteizko beste 30 enpresak egin zuten bat grebarekin, eta langileen emazteek hainbat ekimen eraman zituzten aurrrera. Ezagunena azoka, kale eta erakunde nagusien egoitzetara erosketetako saski hutsak eskue-tan zeramatzatela joatea izan zen, senarrak greban egonda ezertarako dirurik ez zutela salatu nahian.

Orain arte aipatutako datu horiek guztiak, Martxoak 3 elkarteak sarraskiaren berri emateko asmoz urrian argiratu zuen unitate didaktikoan aurki daitezke. Unitatearen aurkezpenean adierazten den bezala, «Gasteizko bost langileen hilketa eta tiroz zauritutako pertsona ugariak hiri honetako historia hurbilaren parte dira; horregatik, unitate honen helburu nagusia gertaera horiek aztertu eta beren testuinguru historikoan kokatzea datza».

“1976. Martxoak 3” unitate didaktikoak trantsizioaren eta demokraziaren inguruan herritarrek dituzten ideiak kritikoki eztabaidatu eta berrikustea ere badu helburu, eta gertaerak beren testuinguruan kokatzea, demokraziarako trantsizio prozesuan jazotako gertaera historiko gisa aurkeztuz. Era berean, trantsizio prozesuak garaiko gertaera ezberdinekin izandako harremanaren gaineko hausnarketa bultzatu nahi du, gertaeron zergatiak eta testuinguru politiko hurbil edota urrenetan dituzten eraginen inguruko azterketaren bidez.

Unitatea euskaraz eta gaztele-raz eskura daiteke eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailetan zein Batxilergoko 1. eta 2. mailetan jorratuko da. Izan ere, gazteak dira martxoak 3an gertatutakoaren oroimena bizirik mantendu behar dutenak. «Ikasleek Gasteizen gertatu zenaren berri edukitzeko sortu genuen unitatea. Klasean ikasi-



takoari esker ikasleak euren ondorio propioak ateratzeko gai izatea nahi dugu, kanpoko inolako eraginik gabe», azpimarratu du Andoni Txaskok. Zentzu horretan, ikasleei zuzendutako testu «espezifikoa» bat faltan botatzen zutela azpimarratzen du Martxoak 3 elkarteak. «Horregatik bultzatu ditugu hainbat erakundetan bertsio ofiziala ezeztatzen duten adierazpen historikoak», gaineratu du 2004an Valentin de Foronda Institutuak egindako txostena aipatu ostean.




ELKARTEAREN ESFORTZUA

Baina unitate didaktikoa osatzea ez da lan erraza izan. Lehen saiakera 2012an egin zuten. Garai hartan unitate didaktiko baten zirriborroa aurkeztu zieten Lakuako agintariei. Agintariek ez zuten onartu, dirudienez, «proiektua hobeto garatu behar zelako». Eta hala egin zuten. «2013an testu landuago bat aurkeztu genuen, ikasleei zuzendutako memoria batekin, eta Eusko Jaurlaritzak diru laguntza bat eman zigun proiektua aurrera eramateko», azaldu du Txaskok. Dena den, Gasteizko Gobernuaren laguntza ez zen nahikoa, eta elkarteak «esfortzu handia» egin behar izan du unitatea argitaratzeko.



Txaskok dioenez, unitateak, agintarien bertsioa ezeztatu eta gertatu zenaren berri emateaz gain, 1976an gizartearen indarrean ziren balioak berpiztu nahi ditu. «Garai hartan gizarte justiziaren alde borrokatzen genuen. Elkartasuna eta gizarte justizia bizirik mantendu behar ditugun balioak dira, gazteei transmititu behar dizkiegu, eurak baitira egun bizi dugun egoera latz honen biktimak. Kontsumismo anker batean sartu dituzte, eta, orain, euren eskubideen alde borrokatu beharrean daude. Horregatik berreskuratu behar ditugu martxoaren 3an nagusitu ziren balioak, bereiziki elkartasuna», nabarmendu du.

Unitate didaktikoa prestatu baino lehen, Txaskok berak defenditu zituen aipatutako balioak hainbat ikastetxetan egindako hitzaldietan. Orain, tresna berri honi esker, ikasleek beraien aitona-amonek eta gurasoek pairatutako errepresio gordinaren berri izango dute. Egungo egoerarekin lotuta, testuan 1976an indarrean ziren errepresioa, eskubide gabezia eta askatasun falta irudikatzen direla gogoratu beharra dago. Are gehiago PPko Gobernua inposatzen ari den murrizketak ikusita. «Garai hartako borrokaren duintasuna faltan botatzen dut. Ez genuen sekula buruan zer gal genezakeen, irabaz genezake-



ena defendatzen genuen soilik», aitortu du.

Unitatearen banaketari dagokionez, jada testua Arabako ikastetxetara bidali dutela adierazi du Txaskok. Halaber, Euskal Herriko beste herrialdeetako hainbat institutuk eta Burgoseko ikastetxe batek unitatearen aleak eskatu dituztela azpimarratu du. «Edonork eska dezake Martxoak 3 elkartearen webgunean aurki daitekeen unitatea, eta Jaurlaritzak ere interesa azaldu du». Amaitu baino lehen, unitatea «dinamikoa eta entretenigarria» suertatzea espero duela esan du Txaskok.

IKASTETXE GUZTJETARA

Hori espero du Miren Rodrigok ere, Amada Ruizekin batera unitate didaktikoa egin duen irakasleak. German Rodriguez gazte iruindarraren heriotza azaltzeko argitaratutako unitatea eredu gisa hartuz, 1976ko martxoaren 3ko Zaramagako sarraskia azaltzen duen unitatea prestatu dute. Halaber, biktimekin hitz egin dute eta ikerketa sakona burutu dute testua osatzeko. «Elkarteak eskatu bezala Gasteizen gertatu zena eskoletan irakastea garrantzitsua dela uste dugu», gaineratu du.

Orain artean, harrera ona izaten ari da ekimena. «Erantzuna ona izan da, eta datorren urtean Hego Euskal Herriko ikastetxe guztietara bidaliko dugu unitatea», nabarmendu du Ikasbidea ikastolan eta Ciudad Jardín institutuan unitatean agertzen diren ariketak jada landu dituztela ezagutarazi baino lehen. Zehazki, unitate didaktikoa lau ataletan banatuta dago: testuiguru historikoa, gertatutakoaren kronologia, jardueraren garapena eta ebaluazioa.

Xabier Sagastak ere parte hartu du unitate didaktikoan, berak egin baititu marrazkiak. Dionez, erreportaje honetan ikus daitezkeen marrazkiak Zaramagan gertatutakoa azaltzen duten eszenak dira. Horietako batzuk herriarrek egun latz hartan aterako argazkietan oinarritzen dira, eta besteak testigantzei esker marraztu ditu. Gasteiztar guztiek bizi izan baitzuten martxoaren 3ko sarraskia.



Gorka Zozaia
Kimikaria

Ausak nahi izan du

Adibidez, gai hau hautatzea gaurkoan. Ausak nahi izan du, era berean, gaia hautatu eta sortu zaidan irakurgai kaosetik ideiak ordenatzea eta artikulu honetan ematea. Aipatutakoa azalduko dut, haria galdu baino lehen. Normalki, artikulua gaiaren bila jaritzen naizenean aktualitateari begiratzeko diot, zientziaren azken berriei, baina baita jendearen intereseko diren berri nagusiei ere. Zelabait, zientzia egunerokotasunera hurbiltzen saiatzen naiz, edo egunerokoa zientziatik irakurtzen. Eta aldarrikapenerako efemerideak gertu direnean, beti izaten dut zalantza bera; oraingoan, Andreen Eguna berton eta feminismoa ezkutatzeko go-goan izan dut urtean zehar isilik direnkin bat ez etortzearen. Baina, ausak nahi izan du andre zientzialari bat, eta are, epistemologia feministaren gaia, ekartzea gaurkoan.

Lynn Margulis (1938-2011) da bera. Harritu naiz ezagutu berri dudalako. Harritu naiz bere heriotza nire ohiko gaien eskizatik pasa zitzaidalako. Datorren ostegunean beteko lituzke 77 urte. Ausa. Harritu naiz, eta maitemindu naiz, bere bizitzaz, lanaz eta jardunaz. Hainbeste, ez nukeela nahi zutabe honetan bi komentario ziztrinekin bere irudia mugatu. Egin dudana bidea azaltzen jarraitzea da zentzuzkoena: epistemologia feministaren gaia ukitzea otu zaidala esan dut, eta oroitu dut "Zientzian ere, feminismo-rantz!" izeneko artikulua idatzi nuela aspaldi korrante nagusien berri emanez. Aspaldi 2011ko azaroaren 24a da -ze urrun egin zaidan!-. Baina hain ondo azaltzen nuen orduan... ez nuen errepikatze gogorik, eta bila jarraitu dut.

Agerkari digitaletako zientzia atalak errepasatzeari ekin diot. Interesgarria izan da. Neandertalgo gizakiek sexuen arabera lan banaketa zutela zioenak jo dit atentzioa. Aspaldi nuen neandertalen gaia hartzeko nahia, nola erortzen ari diren beraien gaineko mitoak, zer-nolako harremana izan zuten *homo sapiens*-ek eta neandertalek, egiten zituzten irudi abstraktuak... eta nola kostatzen ari zaion zientzia komunitateari hori guztia onartzea! Azkena berria neandertalen hagi-

nak sexuaren arabera aztertuta ezberdintasun esanguratsuak behatu direla omen da; ahoa eskuaren antzera lanerako tresna izanik, urratu gehiago antzeman dituzte emeengan, lanen banaketa bazela iradokitzen duena.

Baina larregi litzateke hori dena zutabe honetan zentzu apur batekin sartzeko, eta artikulua berak eraman nau lehen begi bistan ezagun egin zaidan Margulis izenaren atzetik. Irakurri dut bere lanaren inguruan, bere hipotesi eta ekarpen nagusiak irentsi ditut. Berezik harrapatu nau teoria ebolutiboari egin dako ekarpenak, zelula eukariotoen agerpena prokarioto hainbaten txertaketa sinbiotiko gisa frogatuz, eta, ildo horretatik, sinbiogenesia kokatuz eboluzioaren motor nagusi gisa. Zientzia komunitatean ezarria den ortodoxia neodarwinistari aurre eginez, geneen ausazko mutazioen orde, batez ere bakteriek izakiekin izandako elkarrekintza sinbiotikoa proposatzen zuen berrikuntza eta aniztasun biologikoaren sortzaile nagusi gisa. Berriz ere, ezagutzen ez nuen hipotesia, baina azaleko irakurketa batekin dezente ase nauena. Biologia ebolutiboak animaliak eta landareak beren konplexutasuna eta espezializazioa areagotzeko norabidean aktore gisa ko-

katu dituen bitartean, Margulisentzat konplexuagoak diren organismo horiek konplexutasun txikiagoko organismoen komunitateak besterik ez dira. Hala, konplexutasuna eta espezializazioa areagotzeko bultzada, komunitate anitz horretan ematen diren elkarrekintzetatik ulertu behar dela proposatzen du. Hots, eboluzioaren motorra ausan baino, testuinguruan kokatzen du.

Eta hala jarraitu dut irakurtzen, eta detaile bakoitzarekin maitemintzen.

AEBetako Zientzia Akademiako kidea ez ezik, Errusiako Zientzia Akademiako kidea ere izan zen, bizitza pertsonala ohiko bikote roletik at egin zuen, eta, era berean, asko maite dudana Carl Saganen bikotekidea ere izan zen, ikerlari abenturazalea, isiltzen ez den horietakoa, Irailaren 11ko gertakarien ikerketa independentea publikoki eskatzerainokoa... Zientzialari zorrotz eta argi bat aurkitu dut, tamalez 2011ko azaroaren 22an hil zena. 2011-11-22. Arraioa! Hain zuzen ere aipatu artikulua idazten ari nintzen egun horietantxe doi-doi! Kasualitatea! Kasualitatea? Ausa izan al da informazio testuingurutik artikulua hau erditzea nahi izan duena? Ez, ez du ausak nahi izan, nik nahi izan dut! •



Lynn Margulis (1938-2011). GAUR8

{ koaderno } Laura Mintegi

Etikaz mintza gaitezen

Politikaren ezgaitasunak etikaren inflazioa eragin du. Demaseko ustelkeriari edo bortizkeria politikoari aurre egiteko, etika eskaintzen da euste-horma gisa, gainezka egindako urak ubidera birbideratu nahian: zoru etikoa aldarrikatzen da bortizkeriaren aurretiko egoera «ez-bortitzera» itzultzeko, eta batzorde etikoak erabazten dira jarduera politikoaren epai «moralak» egiteko. Badirudi «etika» aipatze hutsak eremu birjinal batean kokatzen gaituela, lege eta arauetatik baino gorago dagoen nonbait, eta etika markak autoritate berezia ematen diola epaiari.

Arazoa da, baina, eremu politikoan darabiltzaten etika hori ez dela horren birjinala, sema eta zama dituela, eta hurbilago dagoela moraletik, Kantek eta Nietzschekek ulertzen zuten moduan, Aristotelesen etikatik baino. Ehun urteko aldeaz, filosofo alemaniarrek zioten moralak dela gizarte batek ezarritzen duen arau multzoa, garaian garaikoa, agintarien zerbitzura jarria eta herritarren portaera kontrolpean edukitzeko egina.

Etika, ordea, beste eremu batekoa da filosofoen ustean. Etikak ez dio erantzuten aurretik ezarritako kode bati, baizik eta gizakiarengandik sortzen den berehalako erantzuna da. Rousseauk uste zuen, bertuteak bezala, etika berezkoa dela pertsonengan, eta unibertsa dela, eta uste zuen gizakiek ahalmena dutela etikaz jokatzeko, justizia gogoan.

Erakundeetatik bolo-bolo dabilen etika hurbilago dago moraletik filosofoen etikatik baino. Etika «instrumental» honek oinarri eta helburu du gaizkia definitzea, hau da, argi bereiztea zer den intrinsekoki gaitza edo maltzurra («*estuvo mal*»), eta definizio horren inguruan «kontsentsu zabala» biltzea lortzen du. Egia esateko, Zuzenbide osoa hori baino ez da, gaizkiaren aurkako araua. Zuzenbide-estatua aldarrikatzen denean aldarrikatzen ari da, finean, gaizkia identifikatu duen espazio baten araua ezartzea.

Ahotan darabilen etika honek ez du definitzen ongia, errazagoa baita esatea zer ez egin, zer egin behar den baino. Ongia xedatzen du gaizkiaren ifrentzutik abiatuta. Eta gaizkia, esan berri dugu, Estatuak definitzen du –eta

Estatuaren zerbitzura dagoen Zuzenbideak–. Kontua da etika hau ezegonkorra dela, gaizkia definitzeak ez baititu ekiditen berekoikeria edo bortizkeriaren hedapena.

Ez da hutsala, beraz, ondo bereiztea zertaz ari garen etikaz ari garenean. Etika izenpean saldu nahi zaiguna, azken batean, Mendebaldearen kontserbadurismo kerra eta zaharraren gotorlekua da, non moralak –*ad hoc* eginkoa– marrazten duen onargarriaren eta ez-onargarriaren arteko marra fina; eta berak ezartzen duen zer den ezberdina izatea eta, jakina, zenbateko ezberdintasunak onartuko dituen.

Etika honek bidaide funtzioa betetzen du, bidelagun gisa. Iritzi mailakoa da, printzipiorik gabekoa. Bateragarria da interes ekonomikoek ezartzen dituzten injustiziekin. Bateragarria da batere «etikoak» ez diren portaera politikoekin. Bere xede bakarra da iritzi «kontsentsutua» eta etsitua ezartzea zenbait interesen mesedetan.

Etika izenpean saldu nahi zaiguna
Mendebaldearen kontserbadurismo kerra
eta zaharraren gotorlekua da, non moralak
marrazten duen onargarriaren eta
ez-onargarriaren arteko marra fina

Bestalde, bestera pentsarazi nahi bazaigu ere, ez dago etika orokorra; egiazko etikak banan-banan aztertu beharko lituzke egoerak. Baina logika parlamentarioa ez da saiatzeko egoera bakoitzaren gainean hausnarketa egiten, ezta jokabideak printzipioetan oinarrituta zehazten ere. Eta larria da, etikak ez bailuke izan behar pentsamenduaren ukapena, etikaz mintzo garenean ezinbesteko baldintzak baitira hausnarketa eta argumentazioa.

Etikak helburu izan behar luke gizakiaren eskubideak ordenatzea eta jarduera gizatiarrak zehaztea. Hau da, positiboan ezarri beharko lituzke definizioak. Horren ordez, etikaren izenean damua eta errefusa exijitzen dira. Oker. Damua adierazteak ez du gezurra egia bihurtzen. Egia ez da transformatzen. Enuntziatua aldatzen da, ez errealtatea. •

Gaur, juxtu gaur, ikusiko du argia H28 Internet bidezko aldizkari satirikoaren bigarren zenbakiak Issuu plataformaren bidez, eta baita Twitterren eta Facebooken ere. Dani Fano eta Ainara Azpiazu *Axpi* komikigileek aurrreratu digutenez, «sekulakoa» izango da. Fano irudigile eta komikigilea eta Axpi ilustratzaile eta komikigilea ezagunak dira GAUR8ko orrialdeotan, hilean behin egiten baitute beren irudi ekarpena. Eta biak dabil-tza orain, beste marrazkilari askorekin batera, H28 proiektuaren barrunbeetan.

“Charlie Hebdo” aldizkariaren aurkako erasoek piztu zuten euskarazko aldizkari satirikoaren proiektuaren metxa. Asisko Urmeneta, Marc Armspach eta Patxi Uharte *Zaldieroa* marrazkilariak jarri zuten ideia mahai gainean, eta segidan batu zen bidera beste irudigile mordoa. Lehen zenbakiak, urtarilaren 28an argitaratutakoak, zeresana eman du, han eta hemen aipatu da eta normalean lehen lerroan egoten ez den komikilarien sektorea albisteetara goratu du.

«‘Charlie Hebdo’ aldizkariaren harira, gaurkotasunari lotutako zerbait da komikigintza, umore grafikoa eta satirikoa. Baina, horrez gain, aspalditik dago bete beharreko zulo bat euskarazko aldizkari satirikoei dagokionez. ‘Napartheid’ desagertu zenetik dago zulo hori. Izan dira beste-lako saiakerak, baina irismen oso mugatua izan dutenak. Bazegoen umorea euskaraz eta euskaratik egingo duen aldizkari baten beharra. Gaiak gaurkotasuna duelako eta behar hori zegoelako izan du halako oihartzuna proiektuak», hasi da Dani Fano. Axpi ere igarri du oihartzun hori; «jendeak aipatu dit H28 aldizkaria eta harrituta geratu naiz, inoiz komikiaren inguruan hitz egin ez didatenek ere aipatu baitidate».

Izan ere, umore grafikoak ez du publiko oso zabala izaten. «Hala ere, marrazkigintzan umorea egiten dutenak izaten dira ezagunenak, zuzen iristen

baitira jendearengana. Edonori Joann Sfar, Marjane Satrapi eta Regis Loisel aipatu eta ez daki nori buruz ari zaren. Aldiz, Qui-no edo Forgues esan eta ezagunak dira. Komikiaren esparruan gehien iristen dena umorea dela iruditzen zait», iritzi dio Fanok. Eta iristen da punta zorrotzekoa delako, lasai eserita gaudela ipurdia ziztatzen digulako, eta kontraesanak sortu. «Komiki bat hiru segundotan ikusten duzu. Hori da irakurketa bakarra. Ez baduzu asmatzen, azalpena eman behar baduzu... ez du balio», zehaztu du.

MARRAZKILARIEN BILGUNEA

Hainbeste marrazkilari proiektu berean elkartu izana ere deigarria izan da. «Euskal Herrian ez gaude ohituta hainbeste marrazkilari elkarrekin argitalpen berean ikusten. Hori ere erakargarria dela iruditzen zait», gaineratu du Axpi.

Publikoarentzat erakargarria, eta, marrazkilariantzat, arnasa hartzea bezain beharrezkoa da elkartzea. «Duela hamabost bat urte erabat sakabanatuta geunden. ‘Napartheid’-en garaia bukatu ondoren, zulo bat sortu zen, eta ez zegoen batzen gintuen ezer. ‘Xabiroi’ sortu zenetik batzuk horren inguruan batu ginen, harremana sortu genuen eta elkarrekin gauzak egiten hasi ginen. Gaur egun Euskal Herrian bada egile sare bat, bata bestearen berri daukagu eta horrelako gauzak sortzen dira. Bestela, sare hori ez balego, ezinezkoa izango litzateke H28 bezalako proiektu bat martxan jartzea hamar egunetan. Eta pentsatzekoa da aurrrerantzean indartu egingo dela sare hori».

«Guretzat biltzea garrantzitsua da. Elkartzen garen bakoitzean pilak kargatuta bueltatzen gara lanera, erabat indarberrituta. Garrantzitsua da bizimodu berdintsua eta kezka antzekoak dituztenekin batzea. Bestela, hor egoten gara gure burbuiletan, Interneti lotuta», segitu du Azpiazuk.

Zulo bat zegoen euskarazko aldizkari satirikoaren arloan. Zulo bat zegoen euskal irudigileen bilgunea behar zuen tokian.

«Nik alde batean eta bestean ikusten ditut makilakadak emateko gaiak, baina nik aukeratuko dut egurra zeini eman. Nire burua ikusten dut H28-n nahi dudana egiten»

«H28 ‘beroaldi’ bat izan da, ‘egingo al dugu?’ moduko erronka. Baina martxan jarri da marrazkilariak faltan sumatzen zuten espazio bat sortzeko, askatasunez jarduteko plaza bat izateko bokazioz»

Zulo asko dituen sektorea al da? «Ez da batere erraza hone-tatik bizitzea, orokorrean ez baita ulertzen ordaindu beharreko lana dela. Gure bizimodu-a ere berezia da, beste lanbi-deekiko desberdina. Baina marrazkigintzak poz handiak ematen ditu. Zure lanpostua sortu duzu eta zu ari zara hori aurrera eramaten. Ez dakit gero zer etorriko ote den, baina askotan pentsatzen dut ondorengoei begira gustatuko litzaidakeela marrazkilariaren, komikigilearen edota ilustratzailearen figura ez dadila fikzio bat izan. Haur batek marrazkilaria izan nahi duela

amesteko modua izan dezala», gaineratu du Axpi.

Dani Fanoren ustez, «zulo» izan da komikigintza eta, hein handi batean, «kultura espaino-letik» jaso dugu ikuskera hori. «Kultura espainolean komikigintza kultura underground batera lotu izan da, frikien mundura. Baina, hala ere, oso medio indartsua eta adierazkorra da. Eta ozen esango dut: ‘Euskal Herria, komikigintzaren beharra daukazu’. Eta horren froga garbiak daude. ‘Charlie Hebdo’-ko erasoak komikigileei gertatu zaie, marrazkiak indar handia duela-ko. Gurean, kultura espainola-ren herentzia jaso dugun neu-



rrian, komikia bazterrean egon da. Harkaitz Canok beti aipatzen du komikigintzan hasi zenean Iñaki Holgado eta biok esan genion gauza bat: 'Hemen, Harkaitz, ez dago ezer. Ez dago sosik, ez dago prestigiorik eta ez dago *glamour* apurrik ere'. Berak ez zuen erabat sinetsi, baina gero bere azalean sufritu du. Idatzizko liburu bat argitaratzen duenean foku guztiak bere gainean jartzen dira, baina komiki bat kaleratzen duenean ez diote kasurik egiten. Hala ere, umore grafikoak badauka bere publikoa, eta uste dena baino zabalagoa da».

Umorearen eztena zorrotza da, zorrotzegia batzuen azalera-

ko. Euskal Herrian, esaterako, edozeri buruz egin daiteke umore grafikoa? Axpiren hitzetan, «ez, umorea oso mingarria izan daitekeelako. Hala ere, dena neurtzen duzun moduaren arabera da. Oso gaztea nintzela aldizkari batean hasi nintzen marrazkiak egiten eta lehen hiru hilabetetan hiru aldiz zentsuratu ninduten. Hirutan esan zidaten ezin zutela argitaratu nik bidalitakoa. Oso gaztea nintzen eta gaiak etorri bezala ekartzen nituen paperera, iragazkirik gabe. Urteekin leuntzen joan behar izan dut eta batzuetan sentsazioa daukat; 'hara, beste pastel bat, hortxe daukazu'.

«Jasota dago Jesus biluzik gurutziltzatu zutela. Hori idatziz gero, ez da ezer pasatzen. Baina, hori marraztuz gero?»

Neurtu behar horretan batzuetan ideiak indar guztia galdu egiten du. H28 aldizkarian asmoa da zentsura ahalik eta txikiena izatea, eta egin nahi duguna egitea».

Fanok oso garbi dauka, lehen zentsura-polizia norberaren buruan dago: autozentsura. «Tabuak kultura eta jendarte guztietan daude. Gure lanak, hain juxtu, hori izan beharko luke: jendeari lagundu tabu horiek hausten. Azkenean bufoiaren lana hori da. Beldurra kentzeko modurik onena hori da; beldurra ematen dizun horri barre egitea. Horrek izan beharko luke gure funtzioa: jendeari zer pentsa eman, zer hausnartu, gauzak aldatzeko bidean jartzeko. Hitz handiak dira horiek».

«H28, NAHI DUGUNA EGITEKO»

Autozentsuraren gainetik, herri bakoitzak eta jendarte bakoitzak bere testuingurua bizi du, eta tabu propioak dauzka. «Gurean Mahomari buruz ia edozer marraz dezakezu, baina, esaterako, AVTko (Terrorismoaren Biktimen Elkarte) norbaiti buruz aritzen bazara, kontuz».

AVT elkarteaz harago, gure herrian badira bestelako tabuak, gertuko gaiak, txiste askotarako eman arren autozentsuraren atea pasatzen ez dutenak. «Denok merezi ditugu makilakadak, zalantzarik gabe. Kontua da, zer eskatzen diogu H28-ri? Nik alde batean eta bestean ikusten ditut makilakadak emateko gaiak, baina nik auke-ratuko dut egurra zeini eman. Nire burua ikusten dut H28-n nahi dudana egiten. Eta esango didate, 'eta hauekin zergatik ez duzu umorerik egiten?'. Ba, ez dudalako nahi. H28 aldizkarian sudurraren puntan jartzen zaidana egingo dut».

H28 «beroaldi» bat izan da, «egingo al dugu?» moduko erronka. Baina martxan jarri da marrazkilariek faltan sumatzen zuten espazio bat sortzeko. «Batzuetan ideia etortzen zaizu burura, ona iruditzen zaizu, baina ez daukazu non agertu. Horretarako sortu dugu H28, ideia horiek argia ikus dezaten», jarraitu du Fanok.

DANI FANO ETA AINARA AZPIAZU «AXPI» KOMIKIGILEAK

«Charlie Hebdo»-ren aurkako erasoak gertatu zenean, euskal irudigile askori piztu zitzaion zerbait esateko gogoia, beren hizkuntzan, marrazkiaren bidez. Eta horretarako plaza falta zitzaiela konturatu ziren. Eta plaza propioa sortu zuten, H28 aldizkari satirikoa.

amagoia.mujika@gaur8.info



Argazkiak: Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Marrazkiaren zuzentasuna eta indarra ere hor daude. «Liburuetan jasota dago Jesus biluzik gurutztatu zutela. Hori idazten baduzu, ez da ezer pasatzen. Baina hori marrazten baduzu?», eman du adibidea Dani Fanok. «Gure helburuak ez du zertan transgresioa izan behar. Baina bai gizartean traba egiten digutenak, gustatzen ez zaizkigunak zailtzen jartzea. Eta nola egin daiteke hori? Ba garrantzia kentzen, leuntzen, hutsal bihurtzen. Finean, umorea egiten», jarraitu du.

Neurrian dago gakoa. «Umorea egiten duzunean zailena neurria hartzea da, oreka topatzea. Nik, esaterako, ez nuke mingarria izan nahi inorekin, baina ziria sartu nahiko nuke», gaineratu du Axpik.

GUTAZ EDO GUREKIN BARRE EGITERA?

Umoreak badauzka balio asko, balio du sendatzeko eta berdin balio du jendarte bat eraikitzeko, edo eraikitakoa hankaz gora jartzeko. Baina apenas ematen zaion baliorik gauza serioen munduan. «Hain zuzen, beldurra ematen duelako. Gutaz barre egitera dator edo gurekin barre egitera dator? Kontuz», esan du Dani Fanok. «Satira zorrotza, zuzena eta eraginkorra da. Esaterako, Javier Kraheren ‘Cuervo ingenuo’ abesti satirikoa, PSOE hain ondo larrutzen zuena, izugarria izan zen. Eta horren ondorioz gogor jazarri zuten Krahe. Satira inteligentziatik eta zorrotasunetik egiten denean, norbait ondo errikulizatzen asmatzen baduzu, hori izugarria da. Ados Axpirekin akaso mina egitea ez dela helburua. Mina egin ez, baina pipertu bai. Eta norbait pipertzea lortzen baduzu, akaso lortuko duzu bere jarreraren inguruan hausnar dezan». Fanok aitortu duenez, inguruan oso lagun zirikatzaileak izan ditu, bere buruaz barre egiten lagundu diotenak, «eta norberaren buruaz barre egitea, benetan, sekulako liberazioa da».

Baina umorea, marraztearen antzera, «umeen gauzak» izeneko kutxa horretan sartzen da maiz. «Tontakeriak dira, umeen gauzak... horrela hartzen dira maiz bai umorea eta bai marrazkia. Eta, alderantziz, maiz gauza serio-



*«Ondorengoei
begira gustatuko
litzaidake
marrazkilariaren,
komikigilearen
edota
ilustratzailearen
figura ez dadila
fikzio bat izan. Haur
batek marrazkilaria
izan nahi duela
amesteko modua
izan dezala»*

ei pultsua hartzeko modurik onena da umorea. Eta berdin marrazkia», nabarmendu du Axpik.

«Euskaldunok badugu elkarri zirikatze joera, hitz jokoak egin eta umoretik aritzekoa. Herri txikietan eta euskal guneeetan, esaterako, maiz harrituta gelditzen naiz jendearen ateraldiek eta jarioarekin. Baina maila pertsonalean izaten da, ez maila publiko edo sozialagoan», gaineratu du



Axpik. «Bertsolaritzak ere asko du satiratik eta umore azido horretatik. Bertsolariak maisuak dira horretan, eta guk asko ikasten dugu haiekin», segitu du Fanok.

«Gure gutxitasun konplexuagatik –gure kultura oso txikia delako eta oso jazarria izan delako–, inor baino sakonago, inor baino landuago, serioetan serioenak ez ote garen aritzen iruditzen zait maiz. Noski, ingelesek ez dute

*«Kultura
espainolean
komikigintza
kultura
underground batera
lotu izan da, frikien
mundura. Baina,
hala ere, oso medio
indartsua eta
adierazkorra da. Eta
ozen esango dut:
‘Euskal Herria,
komikigintzaren
beharra daukazu’»*

horrelakorik egin behar; kultura indartsua eta mundu osoan zabaldua dutelako. Euskal Herrian, segur aski, denbora beharko da gauzak beste modu batera hartzeko. Aldatzen ari da, baina oraindik asko dago egiteko. Kultura hitz larrietan egiten dugu. Serioak, sakonak, landuak... nik ez dut sinesten horrelakoak garenik, jendarte mailara jaisten zarenen bestelakoak garela ikus-

ten baita: zirikatzaileak, adar jo-tzaileak... Baina gure historia hori arrastaka dakarkigu, eta denbora beharko dugu aldatzeko», bota du iritzia Fanok.

H28 aldizkari satirikoak pauso txiki bat izan nahi du bide horretan, sinesten baitute jendarte bat umoretik ere eraiki beharra dagoela. «Gustatuko litzauguke H28 proiektuan zentsura bakarria mailaren arabera izan dadila. Alegia, lan bat atzera botatzen bada, txarra delako izan dadila, ez hau edo bestea kontatzen duelako», esan du Fanok.

SAREKOA ETA DOAKOA

Ziriak ziri eta eztenak ezten, H28 aldizkari satirikoa espazio libre bezala jaio da, eta askatasun horrek beharko luke bere zimendu. «Ez ditugu helburuak zehatz finkatu, baina edozein argitalpenek bezala, ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dugu, ahalik eta lanik onenekin eta ahalik eta denbora luzeenean». Printzipioz sareko argitalpena da, eta horrela segitzeko asmoa daukate. «Webgune bat sortuko dugu eta PDF dokumentuak deskargatzeko aukera emango dugu. Hori dugu buruan. Doakoa da eta doakoa izaten jarraituko du, proiektu honek ez daukalako inolako helburu ekonomikorik. Sudurraren puntan jarri zaigulako sortu dugu H28. Hitz egin dugu dohaintzak jartzeko aukeraz, baina oraindik airean dauden gauzak dira. Oraingoan, hilaren 28 bakoitzean aldizkaria sarean egongo da», zehaztu du Fanok.

Sortu zenetik hilabete eta hamar egun pasa diren honetan, barne funtzionamendua antolatzeke jarraibide batzuk finkatu dituzte dagoeneko. Hiru pertsonako erredakzio talde bat osatu dute –hasierako txandan Asisko Urmeneta, Marc Armspach eta Patxi Uharte *Zaldieroa* daude, ideia martxan jarri zutenak– eta hiru hilero aldatuko dute talde hori, zama bihur ez dadin. Aldizkariak ateak irekita dauzka, edo nork bidal dezake bere lana. Hilaren 20a baino lehen iristen diren lan guztiak jasoko dira; hilaren 20 eta 24 bitartean erabakiko da zeintzuk argitaratu; eta hilaren 28an sarean jarriko dira.



IKUSMIRA



ESKU BARRUAK ZABALIK EDO ITXITA

Esku barruak bistan jartzen dituzu, zabal-zabalik. Eta irria ere bistan eta zabal. Askotan ikusten zaitut, baina ikusi gabe. Ez naiz ausartzen begietara begiratzen, zer topatuko dudan bel-durrez. Ez dakit noiz pasatu zenuen marra fin hori, esku barruak itxita erametik zabalik eramatera dagoen marra. Ogia erostetik edo harategitik ateratzean, artean txanponak ordenatu gabe nagoela, agertzen zara, parean, eskuak zabalik. Eta ni eskuak itxita, txanponei eta arnasari eusten. Oraindik ez dakidalako oso ondo zer egin, eman edo ez eman. Deseroso sentitzen naiz ematen dudanean, karitateak ez baitit aje onik uzten aho sabaian. Eta ematen ez dudanean ere presaka bezala egiten dut bidea, artega. Eta maiz iristen naiz etxera, eskuak indarrez itxita, eta eman nahi nizun txanpona izerdiz bustita.

amagoia.mujika@gaur8.info

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

23-Ftik Garoñara

Xabier Mikel
Errekondo

Astelehenen honetan 34 urte bete dira. **23-F. Golpea**. Frankismoaren sakoneko interesak bermatuak geratzeko espainiar inteligentzia zerbitzuen operazio borobila. Golpea deuseztatu omen zuen eta abdikatu berri duen Borboiaren zilegitasuna eta berarekin zin egin zituen **Movimiento Nacional**aren printzipioak betikotzeko trikimailu galanta. Distantziak distantzia, nago Garoñaren kasuan ere zentzu bereko ariketa baten aurrean gaudela, elektrika enpresak eta gobernuak hautu argia egin dutela zentral zaharra berriro irekitzeko, kosta ahala kosta. Liskar antzeztuen gibeletik erabateko konplizitatean ari dira. Orain arteko milaka milioika euroen bar-kamena eta lege aldagetak lekuko. Halere, lur-ama errespetatzen dutela sinistarazi

nahi digute. Eskandaluon aurrean sinesgarritasuna eskuratzeko ahaleginean formula salbatzailea aurkitu dute: **«segurtasun berme guztiak betetzen badira»** baldintza ezarri. Ederra baldintza, betetzen den ebaztea soilik Gobernuaren eskuetan dagoenean, hots, kontrolpean duen Segurtasun Nuklear Batzordearen (CSN) eskuetan. Amarru hutsa. Gauza bera egin du *fracking*-aren kasuan, ikerketa zein ustiaketa proiektuei **Ingurumen Baimen Bateratua** ezarritz. Baimen hauek ez dute segurtasuna helburu, gobernuaren erabakiaren zilegitasuna baizik. Hala, Kanaria irletak hidrokarburuen prospekzio proiektu bateko Ingurumen Baimen Bateratua Malagako baten *copy&paste* hutsa zela ebatzi zuen epaitegiak. Ederrak bermeak enpresa jakin ba-

tzuen interesen lokatzetan gozo maneiatzen diren gobernuen eskuetan... Bada, hementxe bertan, Arantxa Tapia Industria Sailburuak argudio-esaldi ezin higuatua bera du erabiltzen *fracking*-a babestera jotzen duen une oro: **«segurtasun neurri guzti-guztiak betetzen badira»**... Gauza bera da ematen Garoñarekin. **CSNk baldintza zorrotzak** ezarri berri omen dizkio Iberdrolari (Nuclenor); apustu aurten bertan ematen diela oniritzia CSNk. Erraza amarra, ezta? Ez gaitezen inozoak izan, **teilatupe berekoak** dira-eta Gobernua, CSN eta Iberdrola. Garoña betiko itxiko da herritarrok, alderdiek eta instituzioek egiten dugun indarraren arabera. Gaur Gasteizeko manifestan, bihar Iberdrolarekin ditugun kontratuak hautsiz eta etzi bere lehendakari Ignacio Sanchez Galani *escrache*-a eginaz. •

Euri pertsiana kolpeka

Maider Iantzi

Ez gara deus, konturatu naiz Eurik pertsiana kolpeka ernatu nauenean. Bi aldiz gaur gauean. Haserre dago Zaparraden alaba eta Txingor eta Kazkabarren biloba (Twitterren irakurri dut izendapena eta polita iruditut zait). Etxea airean eramanen zuela ematen zuen... Baina bai, bagara zerbait. Eta Kotoiz idor dezakegu Euriren bizitokia, bere mundua bera, Itsaso. Aste honetan eguraldiarekin izandako sentazioak bizi-bizi (haizea kotxea dantzara gonbidatzen, orroak zerbait erran nahian, ibaiak etxeak jaten...), kontraste itzela izan da kotoi industria batek itsaso oso bat edan duela irakurtzea. Dirudienez,

40 urte aski izan zituen kotoiaren industria sobietarrak munduko laugarren laku handiena –Aral itsasoa, Asiaren erdialdean– lehortzeko. Urez beteta zeuden 60.000 kilometro karratu, leku batzuetan 40 metroko altuerarekin, kolpeka lurrundu ziren. Orain %10 soilik gelditzen da. Asiako bi ibairik handienek elikatzen zuten Aral itsasoa, Sir Dariak iparraldetik eta Amu Dariak hegoaldetik... Asia Erdialdea munduko kotoi ekoizlerik handiena izatea nahi zutenek iturritzat hartu zituzten arte. Hala, 1980ko aldi batean, Uzbekistanen bertze inon baino kotoi gehiago kultibatu zuten. Helbide honetan irakur daiteke albistea: bbc.co.uk/mundo/noticias/2015/02/150225_gch_mar_aral_sequia_lp. Lankide batek, euria gogoz egiten duen aldiro, leihora hurbildu eta, tantez harro, esaldi bera errepikatzen du: «Gustatzen zait euria, librea da! Nork geldi dezake euria!». Eta hala da, ezin dugu gelditu, batzuetan, egunotan bezala, hala nahi eta behar badugu ere. Ongi ikasiak ditugu abisu hori, alerta laranja eta alarma gorriak, baina denak piztuta ere, ezin kalteak ekidin (horietako aunitz ohiko lekuetan). Begiratuaren begiratuaz ezin goiti eta goiti datorren ibaia ateratzea saihestu. Diru gose hutsagatik natura zauritu eta bizitokiak suntsitu arren, Eurik libre segitzen du. Hobe berekin ongi konpondu... •

infraganti ELENA LOYO

Emakume polifazetiko moduan defini daiteke Elena Loyo (Murgia, 1983). Izan ere, bere ibilbidean zehar oso gauza desberdinetan jardun du. Zenbait urtez modelo lanetan ibili ostean, egun lasterketak irabaztea du jomuga. Bestalde, Ingeniaritzako ikasketak eginda ditu, nahiz eta oraindik ez duen mundu horretan aritzeko aukerarik izan. Txistuka taldeko ki-dea da eta Gasteizko ezkontzetan jo ohi du txistua. Eta, horrez gain, euskara ikasten ere ari da. Institutuan euskara emanagatik ez zuen ikasi egoki komunikatu ahal izateko behar adina, eta horretan ari da egun.

Txikitatik gustatu izan zaio arropa probatzea eta argazkietan agertzea, baina, modaren munduak erakarriagatik, argi dauka bertan barneratzeko aukera eskaini izan ez baliote, berak bere kabuz ez zukeela urratsa eman-go. Aukera hori ezustean eta ezohiko testuinguru batean sortu zitzaion, 21 urte zituela. Garai hartan Ingeniaritza ikasketak egiten ari zen Bilbon, eta Gasteiztik hara eramaten zituen elkarteak Gasteizko Modaren Asteko desfile batean parte hartzeko proposamena luzatu zion. «Egia esateko ez nuen horrelakorik espero, baina, erakartzen ninduen mundu bat zenez, probatzea erabaki nuen» azaldu du.

Bere lehenengo desfilea izan arren, eta, inolako ezagutzarik izan ez arren, azterketa hura notarekin gainditu zuen. Horren adierazle da Mclass agentziak modelo gisa lanean hasteko eskaintza egin izana. «Lehenengo desfile hartan nahiko urduri nengoen eta ahal nuena egin nuen. Izan ere, nik ez nekien pasarelan nola mugitu behar nuen, ezta arropa nola eraman behar nuen ere; ezertxo ere ez nekien. Nire buruan estropezurik ez egitea besterik ez zegoen. Zorionez, dena ondo irten zen». Ondoren bai, ondoren ikastaro orokor bat jaso zuen gauza horiek guztiak ikasteko. «Behin ikasita erraz egiten diren kontuak dira. Ez da beste munduko ezer, baina jakin egin behar da» argitu du. Haatik,

Duela urte batzuk pasarela gainean bezala moldatzen da egun korrika Elena Loyo. Primeran, alegia. 2005ean Miss Araba lehiaketa irabazi zuen, eta, egun, goi mailako korrikalaria da. Duela hiru urte inguru jantzi zituen zapatilak eta ordutik hona bere bilakaera ikaragarria izan da.



Duela hiru urte hasi zen korrika egiten Elena Loyo eta marka oso onak lortu ditu ordutik. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

bere burua pertsona lotsatitzat du, eta, ondorioz, desfileetan momentu oro kontzentrazio handia mantendu behar zuela dio: «Nik nire eginbeharrean soilik pentsatzen nuen, bertan niri begira zegoen jende guztia albo batera utzita; bestela, oso urduri ipintzen nintzen. Esperientziarekin urduritasun hori hobeto kudeatzen ikasten duzu, baina niri behintzat hori zen gehien kostatzen zitzaidana».

MODELOAK ETA ARGALTASUNA

Esan beharrik ez dago modeloek haien itxura fisikoa asko zaindu behar izaten dutela, eta, zentzu horretan, oso garrantzitsua da elikadura kontuan hartzea. «Egia esateko sekula ez dut izan arazorik pisuarekin, eta, beraz, ez nuen buruhauste handiegirik izaten. Hori bai, gauza natural eta garbiak jaten saiatzen nintzen». Bitxiagoa da, ordea, kirolarekin pasa zitzaiona: «Nik kirol dezente egiten nuen, eta, ondorioz, giharrak nabaritzen zitzaizkidan. Garai hartan muskulurik gabeko emakume argalak zeuden modan, eta, hala, neurri batean kirola egiteari utzi behar izan nion giharrak horrenbeste ez igartzeko», gogoratu du.

Modeloen gehiegizko argaltasunak zeresan handia eman ohi du eta eztabaida iturri izaten da. Loyok bere inguruan muturreko kasurik ezagutu ez zuen arren, onartzen du lana izateko ezinbesteko baldintza dela: «Guztiek genekien pixka bat lodituz gero ez genuela lanik izango, eta, beraz, tentuz zaintzen genuen elikadura, noski. Diseinatzaileek neurri jakin bateko jantziak egiten dituzte eta bertan sartzen ez bazara arazo bat bihurtzen zara beraientzat. Niri gertatu ez bazait ere, ezagutzen dut pisatzera behartu duten lagunen bat».

Argalegi dauden emakumeak fisikoki erakargarriak diren galdetuta, ez du zalantzarik: «Niri ez zait iruditzen. Gauza bat da ondo janda eta kirola eginda argal baina osasuntsu dagoen emakume bat. Hori estetikoki polita iruditzen zait. Baina ez, ordea, gutxi jatearen ondorioz behar bezala elikatu gabe eta ahul dagoen gor-

putz bat. Hezurra eta azala baino ez duten emakumeek ez lukete eredu izan behar». Zentzu horretan mugak zeintzuk ziren argi izan zuen une oro Loyok. Dena den, onartzen du modarena oso mundu lehiakorra dela eta ispiluaren aurrean eder ikusi beharrak buruhausteak sor ditzakeela. «Zure burua gehiago kritikatzten duzu. Lana lortzeko beste modelo batzuekin lehia-tzen zara eta *casting*-etako hau-taketa prozesuetan epaimahaia-ren gustukoa izan nahiak kezkek sortzen dizkizu. Horrek guztiak zenbait momentutan segurtasun eza ere sor dezake. Beraz, garrantzitsua da momentu horietan burua bere lekuan edukitzea eta arduraz jokatzeara».

MISS ARABA LEHIAKETAKO IRABAZLE

Desfileak, argazkiak, publizitate... denetarik egiteko aukera izan zuen modaren munduan. 2005. urtean, Miss Araba lehiaketa irabazi zuen. Mota horretako txapelketetan argi dago edertasuna dela gehien saritzen dena. Hala ere, beste arlo batzuk ere aintzat hartzen omen ditu epaimahaiak. «Elkarriketa bat egiten dizute eta hori asko baloratzen da. Izan ere, bertako irabazlea, ondoren, Espainiako txapelketara joaten da, zenbait ekitaldi publikoetan parte hartu behar izaten du, eta, hortaz, egoera horietan ondo moldatzeko gai izan behar du. Profil horretara egokitzen den emakume bat bilatzen dute, nahiz eta edertasuna oinarri izan». Esperientzia polita izan zen Loyorentzat eta ateak ireki zizkion. «Miss Araba bezalako lehiaketa bat irabazi eta gero, jendeak gehiago ezagutu eta baloratzen zaitu. Lan gehiago eta garrantzi handiagokoak eskaintzen dizkizute, baina ez pentsatu beste munduko ezer denik. Nik, oro har, probintzia mailan egiten nuen lan, eta Araba ez da Madril».

Miss España lehiaketaz, ordea, ez du oroitzapen berbera. «Biz-pahiru astez egon behar izan genuen hotel batean sarturik, eta, edozer gauza egiteko, baimena eskatu behar genuen, baita komunera joateko ere! Ez genuen ia askatasunik eta bertan eman ziguten tratua ere ez zitzaidan

aproposa iruditu. Zenbait momentutan objektuak bagina beza tratatu gintuzten, errespetu gutxirekin. Haien intereseko gauzak sustatzeko agertu behar izaten genuen argazkietan eta ni ez nintzen eroso sentitzen. Oso artifiziala zen dena. Gainera, beste partaideen izaerarekin ere ez nuen bat egiten. Oso desberdinak ziren.

Hura ez zen nire mundua», kontatu du.

Modelo gisa aritzen diren emakumeek jasan behar izaten duten exigentzia maila tarteko, salbuespen gutxi batzuk aparte utzita, ez da erraza urte luzez lan horretan jardutea, eta hori argi zuen Elena Loyok hasieratik. Halaber, ibilbide horri ilusioz ekinagatik, behin bertan murgilduta eta mundu horren barrunbeak ezagututa, jabetu zen ez zela benetan asetzen zuen lanbidea. Hala, 26 urterekin bukaera eman zion bere bizitzako fase horri.

KORRI EGITEA, BERE BENETAKO PASIOA

Elena Loyoren zaletasunen artean egon da betidanik kirola praktikatzea. Aurretik ere atera ohi zen noizbehinka lasterka egitera. Batez ere, azterketa garaietan suertatzen zitzaion lagungarri pilatutako tentsioa askatzeko. Duela hiru urte jantzi zituen berriro zapatilak goatzeko helburuarekin, eta ordutik bidelagun banaezin izan ditu. Pixkanaka, lasterketetan parte hartzen hasi zen eta bere markak eta postuak hobetzen joan dira etengabe. «Duela hiru urte egun egiten ditudan denborak egingo nituela esan izan baidate, ez nukeen sinetsiko», adierazi du.

Oraindik helburua ez da aldatu –gozatzea–, baina bai hori lortzeko modua. Izan ere, egun ez da jada lasterka egitearekin konformatzen, garaipenaren bila aritzen da buru-belarri. «Oso lehiakorra naiz, eta, hori, gainera, ezinbesteko baldintza dela

Desfileak, argazkiak, publizitatea... denetarik egiteko aukera izan zuen modaren munduan. 2005ean, Miss Araba lehiaketa irabazi zuen eta hortik Miss España sariketara ere joan zen

Betidanik gustatu izan zaio kirola egitea. Duela hiru urte jantzi zituen berriro zapatilak korrika egiteko. Pixkanaka, lasterketetan parte hartzen hasi zen eta bere markak eta postuak hobetzen

uste dut mota honetako kirol bat praktikatzeko. Lasterketak nork bere buruarekin duen erronka baten modukoak dira. Zure buruarengan konfiantza eduki behar duzu, baita egunero hobetzeko nahia eta desioa ere. Nik, erabat gustura geratzeko, irabazi egin behar dut. Bestela, bu-ruari buelta asko ematen dizkiot,

hau edo bestea egin izan bazu, agian, lasterketa beste modu batean amaituko nukeela pentsatuz. Hala ere, jakin badakit zein den zenbait lasterketetan izaten ditudan aurkarien maila, eta, beraz, jakitun naiz las-

terketa horietan irabaztea oso zaila dela niretzat», azaldu du.

Irabazteko ezinbesteko baldintza da entrenamendu gogor eta egokiak egitea. Loyoren entrenatzeko moduak, hala ere, ez du zerikusirik gainontzeko lasterkariak jarraitzen duten metodologiarekin. Orduaren eta denboraren menpe ibili beharrean, sentsazioen arabera egiten du lan. Hots, entrenatzera irteten denean ez du denborarik hartzen, eta serieak ere ez ditu egiten. Momentuko gorputzaldiaren arabera erritmoa bizitu edo mantsotu egiten du eta hori da, hain zuzen, lasterketetan aurrera eramaten duen taktika ere. Azken hiru urte hauetako tarterik handienez, halaber, bere kabuz aritu da, inongo entrenatzaileren aholku eta gidaritzarik gabe. «Gasteizko La Blanca taldean egon nintzen hilabete inguruz, baina ez nintzen batere eroso sentitu. Bertan emaitzei baino ez zieten jaramon egiten, eta ezarri zidaten presioa ez nuen atsegin. Ondorioz, taldea uztea erabaki nuen eta ordutik nire kontura aritu naiz».

Loyo 10 kilometroko lasterketetan eta maratoi erdietan (21 kilometro) aritu ohi da orain artean. Oso modalitate desberdinak, inondik ere. «Maratoi erdian indarrak hobeto neurtu behar dira.

Izan ere, hasieran erritmo bizi-egia eramanez gero, indarrak xahutu, eta, ondoren, zailtasunak izateko arriskua dago. 10 kilometroko proban, berriz, erritmo altuagoa eraman dezakezu leher-tzeko beldurrik izan gabe».

Bi modalitate horiek egiteaz gain, mendiko zenbait lasterketetan ere irten ohi da. Errepideko eta mendiko lasterketen arteko desberdintasunak asko dira Loyoren ustez: «Mendiko lasterketetako erritmoa mantsagoa da, baina, hala ere, gogortasun maila altuagoa dela esango nuke. Mendian kilometro bat egitea errepidean bost egitearen parekoa da. Bertan intentsitatea askoz handiagoa da. Gainera, arreta maila altuagoa eskatzen du mendiak. Momentu oro topa ditzakezu oztopoak lurrian eta ezinbestekoa da adi-adi joatea ez jausteko».

Arestian aipatu moduan, Loyoren bilakaera nabarmena izan da azken hiru urteotan. 2013an Gasteizko maratoi erdian garaile izan eta Donostiako Behobian bigarren sailkatu zen, besteak beste. 2014an ere hainbat lasterketa irabazi zituen, Ordizian jokaturiko Josetxo Imazen oroimenezkoa esate baterako. Deigarria da oso hain maila altuan lehiatzea entrenatzailerik gabe eta entrenamendu berezirik egin gabe. Dena den, ez du baztertzen etorkizunean aditu baten aginduetara jartzea. «Nire kabuz jardunda nahiko emaitza txukunak lortu ditudala kontuan izanik, litekeena da entrenatzaile on baten laguntzarekin beste aurrerapauso bat ematea. Aukera hori aztertzen ari naiz orain».

Aurrerapauso hori emateko, ordea, azken lau hilabeteotan lehiatik at mantendu duten arazotxoak gaingaitu beharko ditu lehenik. Orkatila bihurritu ostean guztiz osatu baino lehen bueltatu zen entrenamendueta- ra. Orkatilako ezegonkortasunaren ondorioz gainkargak izan ditu belaunean eta aldakan, eta oraindik ez da guztiz osatu. Dena den, gero eta hobeto aurkitzen da eta segituan berragertzeko nahia du, nahiz eta artean ez duen eguna zehaztu. •

Mikel IBARGOEN

SARE@N

EUROPA

Hauek dira nabigatzaileen arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Siamesesak

Hamar hilabeteko bi ahizpa siames banatu egin dituzte 26 orduko ebakuntza batean, Texas-ko Haur Ospitalean. Bularretik, biriketarik, bihotzaren estalki batetik, kolonetik, gibeletik, hesteetatik eta pelbisetatik lotuta zeuden bi ahizpak. Aste honetan burutu den ebakuntzan 26 pertsonak hartu dute parte, tartean hamabi medikuk, sei anestesistak eta zortzi laguntzailek. Uneotan egoera kritikokan badaude ere, bi ahizpak biziko direla uste dute doktoreek. «Neskatoak banatuta eta ohe banatan ikustea uste baino hunkigarriagoa izan da; malkoz bete zaizkit begiak», adierazi du Darell Cass doktoreak.

> Kim Jong Un

Ipar Koreako Kim Jong-Un buruzagi gorenaren orrazkera parodia askotarako aitzakia bihurtu da azken aste honetan. Pyongyangen, Langileen Alderdiaren Batzorde Nagusiko Departamentu Politikoaren azken bileran itxura berrituarekin agertu da Kim Jong-Un. Zehazki, orrazkera da aldatu duena, ileak bolumen gehiago hartu du, eta gorantz egiten du trapezio forma hartuta; Frankenstein beraren itxura ekartzen du gogora orrazkerak. Horrez gain, bekainak txikitu ditu buruzagi korearrak. Argazkia zabaldu eta ordu gutxira, Kim Jong-Unen inguruko *meme* edo parodiaz josi da Twitter sare soziala.

> Droneak

Parisko eraikin estrategikoen gainetik hegan ikusi dituzte berriro ere piloturik gabeko hegazkin edo droneak, eta Estatu frantseseko segurtasun indarrek ikerketa zabaldu dute, drone horiek nork gidatzen dituen argitzeko. Astelehen iluntzean ikusi zituzten drone hauek azken aldiz Eiffel dorrearen, AEBetako enbaxadaren eta Concorde plazaren inguruan. Urtarrilean, antzeko operazio bat abiatu zuen Poliziak, drone bat Eliseo jauregiaren zein hainbat instalazio militar eta zentral nuklearren gainetik ibili eta gero. Iaz, berriaz, turista bati isuna jarri zioten drone bat Notre Dame katedralaren gainetik gidatzeagatik.

> Birdman

Alejandro Gonzalez Inarrituren “Birdman” filmak goia jo zuen igandean ospatutako Oscar sarietan. Lau estatuatxo eskuratu ditu filmak. Film eta zuzendari onenenarenak eta jatorrizko gidoi eta argazki onenenarenak, zehazki. Gainbeheran den aktore bat du abiapuntu filmak. Ospearen munduari egindako begirada kritiko eta lirikoa da, teknika berezi batekin grabatutakoa: film osoa plano sekuentzia bakar bat izango balitz bezala eginda dago. Julianne Moore eta Eddie Redmayne izan ziren, bestalde, emakumezko eta gizonezko aktore onenen sariak jaso zituztenak aldarrikapenak nagusitu ziren gala gorabeheratsu eta monotonoan.



KUTXATEKA.COM

«INOIZKO, HISTORIKO, SEKULAKO, IKUSI GABEKO»

«Inoizko, historiko, sekulako, ikusi gabeko». Hitz potoloegien zaleak gara. Hitz potoloen zaleegiak. Denbora gurekin hasi eta bukatuko balitz bezala. Eskerrak batzuek

baduten memoria, eta memoriak gordetakoak ziurtatzeko moduko argazkiak. Goikoak Donostiako Bulebarrean hartutako irudiak dira, 1960. urtean. Orduan ere «inoizko, historiko, sekulako» hitzak erabiliko zituzten. Zer egingo diogu, halakoxeak gara. **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria



Interneten balio ekonomikoa

Internetek hiperkonektibitatea ahalbidetu du. Hiperkonektibitatea, bai: pertsonen arteko konexioa, gauzen eta lekuen artekoa, enpresa edota erakundeen artekoa; betiere, Internet bidez. Hiperkonektibitate horren balio ekonomikoa neurtzen saiatu da (ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik) The Economist Intelligence Unit (EUI, hemendik aurrera), SAP enpresak eskatuta.

Horren fruitu da honako dokumentu hau: <http://www.economistinsights.com/sites/default/files/EIU-SAP%20The%20Hyperconnected%20Economy.pdf>. Labur: maila makroekonomikoan eragin positiboa, baina erronka zenbait industrientzat.

Azterketaren arabera, urteak aurrera joan ahala, Internetek maila makroekonomikoan barne produktu gordinari egiten dion ekarpenak gorantz egin du, eta 2016an 2010eko zifrak bikoiztea espero da (barne produktu gordinaren %3,4 zen 2010ean). Europako Batzordeak berak ere antzeko zerbait dio: infor-

mazioaren eta komunikazioaren teknologiek 1995 eta 2007 artean Europar Batasunaren hazkundearen herena suposatu zuten. Nabaria da, ordea, munduko ekonomia boteretsuenetan oinarritutako baieztapena izan daitekeela soilik.

Diote ere, Internet eta mugikorren sektorearen hazkundera, batez ere, «garapen bidean dauden herrialdeentzat» edota «hegoaldeko herrialdeentzat» izango dela baliagarria. Egun, munduko biztanleriaren erdiak baino gutxiagok du Interneterako sarrera. EUIren arabera, Interneterako sarrera areagotuz, lanpostuak sortu eta herrialde horien bizi kalitatea hobetuko litzateke, osasunean positiboki eraginez eta pobrezia murrizpenean lagunduz. Halere, aitortzen dute herrialde horietan azpiegiturretan egin beharko litzatekeen inbertsioa neurgaitza dela. Euren esku soilik utziz, nekez lortuko dela, alegia.

Albiste positibo guztien artean, azpimarragarria da zenbait industrientzat suposatzen duen erronka ere aipatzen duela EUIk. Liburugintza eta musikagintza jartzen ditu adibide, besteak beste. Nola liburuak eta musika kontsumitzeko bidea aldatu egin den, horiek eskuratu edo erosteko moduak erabat aldatu baitira. Egunkariak edota kazetaritza oro har ere ez ditu aipatu gabe uzten. Aldatzera behartutako industriak direla dio, negozio eredu berriak behar dituztela, teknologiekin bizi behar dutela, baita kontsumitzaileen aukera eta hautu berriei ere. Dio, gainera, industria batzuek azterketa gisako hori ez dutela gaitzuko, beste batzuek euren zerbitzuak areagotuko dituzten bitartean. Ez zaie arrazoirik falta. Urteak dira zenbait industria eraberritzeko beharraz hitz egiten hasi ginela. Eta deigarria da oraindik mezu berarekin jarraitzen dugula, inplikaturako aktore guztien etorkizuna bermatuko duen negozio eredurik gabe, norabide jakirik gabe, «saiautuz eta erratuz», bakoitzak ahal duena eginez.

Aktibitate ekonomikotik harago, arlo sozialera jauzi eginez, Internet pertsonen portaerarako ingurune kultural oso gisa definitzen du EUIk.

Baina pertsonen portaeran duen eragina neurtzeko goizegi dela dio, oraindik ez baita hiperkonektibitateak pertsonen zirkulu sozialaren areagotzean izan duen inpaktua erakusten duen ebidentziarik ezagutzen. Baina, neurgarria ez den arren, aipatzen du gero eta gehiago erosten dela Internet bidez, gero eta unibertsitario gehiagok bikotea Internet bidez topatzeko bidea aukeratzen duela, edota hezkuntzako zenbait arlotan paperezko liburuak desagertu egin direla. Zinez interesgarria da, hain zuzen, neurgarria ez den zati hau: Internet nola eta zein neurritan ari da aldatzen gure portaera? Eta gure baloreak? Gure igurikimen edo espektatibak? Gure existentzia maila? Gure pazientzia?

Eta bada gustu handiz irakurriko nukeen beste azterketa bat ere: zein da euskararen balio ekonomikoa Interneten? •



Interneten balio ekonomikoa neurtzen saiatu da The Economist Intelligence Unit. THINKSTOCK

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

1,5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

5 0228



9